

**MUSIKA HEZKUNTZAKO
PROGRAMAZIOAK
MAILAZ MAILA**


(Lehen Hezkuntza)

Errege Belda Arregi
IRALE R400 (2019-2020)

AURKIBIDEA

Sarrera	1
Metodologia	3
Ebaluazioa	7
Etapako helburuak	9
Programazioak mailaz maila	10
Lehenengo maila	11
Bigarren maila	19
Hirugarren maila	28
Laugarren maila	38
Bosgarren maila	49
Seigarren maila	61

SARRERA



Irakasleen betebeharrak zenbatezinak izaten dira ikasturtea abiatu orduko. Gehienak espero izatekoak dira, eta beste asko ezustean sortutakoak. Nahiz eta irakaslea erabateko konpromisoaz jardun aurrera modurik egokienean egiteko, hartutako erabakiek ez dituzte beti nahi bezalako ondorioak ekartzen. Egoera horren aurrean, planifikazioa egiteak erosotasuna ematen du: aurreikusteak tartea mugatzen dio inprobisazioari, eta, ondorioz, jardunaren ardatzari tinko eustea ahalbidetzen du.

Izan ere, hezkuntza musikalak badu arrisku handi bat lanaren planifikazioaren eta inprobisazioaren arteko orekan. Eskola gehiegitan dago hedatuta eta ezarrita musika arloak festa-giroaren ardura hartu behar duela bere gain: egutegian egun seinalatu bat badatorrela-eta, askotan, musika-saioak ospakizunak prestatzeko erabiltzen dira. Arloak lotura zuzena du herri-kulturarekin, bai; baina eskolak musika-hezkuntzaren ikuspegi zabalagoa eman behar du, eta jardunaren ibilbidean zorrotz jokatu delako bermatu. Musika-hezkuntzari bere osotasunean ekitekotan, irakasleak ezinbestekoa izango du bidea argituko dion programazio bat edukitzea: malgua egoeraren arabera aldaketak onartzeko, eta sendoa hartutako erabakien koherentzia bermatzeko.

Arloaren programazioak funtsezkoak dira Eskolako Hezkuntza Proiektuan: horien gainean prestatu behar dira urtean urteko unitate didaktikoak, beharrak zein diren kontuan hartuta. Beraz, programazioa abiapuntua izango da; eta, helburua, berriz, unitateen bitartez ahalik eta behar gehienei erantzutea. Programazioa egiteak, ordea, esfortzua eta denbora eskatzen du, baina merezi du: lan egiteko garaian, erosotasuna eta ziurtasuna dakartza.

Honako material hau mailaz mailako Lehen Hezkuntzako musika-programazioen eredu bat da. Batetik, Lehen Hezkuntzan orokorrak diren atalak biltzen ditu: etapako helburuak, metodologia eta ebaluazioa. Bestetik, mailaz mailako zehaztapenak eskaintzen ditu, alderdi hauei erreparatuta:

- Zeharkako konpetentziak
- Helburuak (etapakoak mailara ekarrita) eta helburuei dagozkien ebaluazio-irizpideak
- Hiru multzoetako edukiak: komunak, hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala, eta musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena
- Edukien sekuentziak (komunak diren edukietan ez dago sekuentziarik, arloko edukietan baitaude txertaturik)

Heziberri 2020 Hezkuntza Eredu Pedagogikoaren dokumentu eta dekretuetan dago oinarrituta, proposamen honek musika-irakasleen jardunean lagungarri izatea du helburu, bakoitzak berera ekartzeko egin beharreko egokitzapenak eginda.

METODOLOGIA

Metodologia estrategia bat dela esan ohi da: ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten elementuak hautatzearen emaitza, hain zuzen ere. Konpetentzietan oinarritutako pedagogian jardunda, bat baino gehiago dira eskueran dauden metodologiak. Mailaz mailako musika-programazioen proposamen hau ez da metodologia bakar batean oinarrituko: zer lortu nahi den, horretarako egokiena den estrategia izango da hautatu beharrekoa.

Proposamen metodologikoen arteko aldea, nagusiki, eduki motaren baitan dago (kontzeptuzkoa, prozedurazkoa edo jarrerazkoa). Komenigarria da edukiak bereiztea, horietako bakoitza metodologia edo prozedura batekin lotuko baita: esate baterako, batzuetan, buruz ikasteko prozedurak lehenetsiko dira; beste batzuetan, pentsamendu ulerkorarekin eta kritikoarekin loturikoak; eta, gainerakoetan, metakogniziozkoak eta autorregulaziozkoak.

Lehen Hezkuntzan bost dira musika arloaren atalak: musika-mintzaira, entzumena, kantua, musika-tresnak eta gorputz-mugimendua. Edukiak antolatzeke garaian, proposamen honetan atalka aurkeztuko dira, nahiz eta eskola saio bakoitzean atalak batera landuko diren, ahal dela guztiei antzeko denbora eskainiz.

Jarduerak konpetentziak garatzeko beharrezkoak diren hiru eduki-multzo hauei erantzun behar diete:

- Ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak
- Hautemate auditiboari eta ulerkuntza musikalaria dagozkien edukiak
- Musika-espresioari, -interpretazioari eta -sormenari erantzuten dioten edukiak

Saioa baldintzatzen duten faktoreak ugariak direnez, prestatutakoa egokitu beharra izaten da sarritan. Gauzak horrela, asteroko saioak programatzeko, irakasleak konpentsazio-lanak egin beharko ditu atal guztietan aurrerapena parekoa izan dadin.

Bestalde, ezin da ahaztu musika arloa ikastetxearen osotasunean kokatu behar dela, eta koherentea izan behar duela haren filosofiarekin. Aipatutako bost atalak lantzea eta hiru eduki-multzoei erreparatzea ez da oztopo izango ikastetxearen proiektuarekin bat egiteko, alderantziz baizik: musika arloak, egokitzeko duen ahalmena dela eta, ekarpen handiak egingo dizkio ikastetxearen proiektuari.

Eguneroko jarduna zehaztuko duen metodologia edozein izanik ere, hainbat printzipio eta estrategia izango ditu oinarrian:

Ikaskuntza esanguratsua

Ezagutza berriak eraikitzea aldez aurretik finkaturiko ezagutza-eskemetan aldaketak egitea da. Ikastearen oinarria aurretiko ezagutzak izanik, lehendik ezaguna denaren gainean jasoko dira jakintza berriak (metatze soila baino gehiago den prozesu baten bitartez).

Abiapuntua beti izango da ikaslearen unean uneko maila, eta helburua lortu ahal izateko, ezinbestean, motibazioa eta ikaslearen jarrera aktiboa indartu behar dira, ikaslea izango baita bidea egingo duena ezagutzak eta gaitasunak eraikiz.

Ikusmolde globala

Lehen Hezkuntzan musika arloa da, eta, horrenbestez, ikasgelako jardunean helburu batzuk betetzeko aritu beharra dago. Dena den, gizakiaren izatearekin estu loturiko kultur adierazpena izanda, arloaz gaindiko presentzia ere badu egunerokoan. Musika, ikasgai izateaz gain, bidea da kontaezinak diren helburu eta egoeretan aurrera egiteko.

Sozializatzea

Giza harremanak lantzeko modu eraginkorrenetako bat musika da. Musika-hezkuntzak garapen intelektuala, afektiboa eta soziala garatzen laguntzen du, ikasgelan aukera ugari sortzen baita sozializazioa lantzeko: talde-lanak, ikaskideen aurreko bakarkako azalpen edo interpretazioak, etab.

Indibidualizazioa

Ikasgelako jarduna programatzeko aintzat hartuko dira ikasle bakoitzaren ezaugarriak, beharrak, interesa eta erritmoa, besteak beste. Helburuak arintzea nahiz aberastea ere askotan egokituko den lana izango da, ikasle bakoitzak bere modura egingo baitu aurrera.

Aniztasunaren trataera

Norbanakoari begiratzeko ikuspuntua edozein izanik ere, bistakoa da ikas-prozesuak hezkuntza-erritmo eta -eredu guztiak hartu behar dituela kontuan, ezberdintasunak ezberdintasun. Aniztasunaren trataeran musika arloko jardunak ekarpen itzelak egin ditzake bereizgarritasunetatik abiatuta eta haietan arreta jarritz. Ikasle guztien aukera-berdintasuna eta parte-hartze parekidea bermatzekotan, ezinbestekoa izango da heterogeneotasunaren trataera egokia egitea eta inklusioaren ildoari jarraitzea.

Irakaslearen rola

Ikasleen garapen kognitiboan irakasleari gidari-lana egitea dagokio, eta helburu izango du ikaslea ikas-prozesuaren eraikitzaile bihurtzea. Horretarako, formazio eraginkorra eskainiko dio, erabakiak hartuz bizitzan aurrera egiteko balioko diona.

Irakaslearen zereginen barruan garrantzitsuenetako bat izango da ikasgelan konfiantza-giroa sortzea. Horrela, ikasleek beren aukeretan sinetsita eta ingurukoekin errespetuzko hartu-emanak dituztela egingo dute aurrera. Pentsamendua eraikitzeke eta erreflexiboak nahiz sortzaileak izateko egingo duten bidean laguntzailea izango da irakaslea.

Elkarlana familiekin

Garrantzitsua da familiekin informazioa trukitzea, haien inplikazioa eta parte-hartzea bultzatzea, eta haiekin elkarlanean aritzea. Izan ere, ikaskuntza-prozesuari muga ez dio eskolak jartzen, bizipenek baizik (eskolakoak izan ala eskolatik kanpokoak izan). Prozesua osoa izan dadin, eragile guztiengan jarri behar da arreta.

Koordinazioa lankideekin

Eskolako prozesuek garapen egokia izan dezaten, nahitaezkoa da lankideak koordinaturik aritzea. Ikastetxe bakoitzaren barne-antolaketak zehaztuko du noiz eta nola egingo den elkarlana eta, edozein kasutan, abiapuntua beti izango da ikasleen erabateko pribatutasuna eta konfidentzialtasuna bermatzea.

Espezialitateko irakasleontzat behar-beharrezkoak dira koordinazio-saioak, ezinezkoa baita ikasleen premiak asetzea irakasleak ikasleen

inguruko informazio osoa jasotzen ez badu. Ikuspegi zabal hori gabe nekeza da eguneroko jarduna egoki planifikatzea.

Bestalde, espezialitateko irakasleok ikasleez nahiz taldeez eman dezakegun informazioa bereziki interesgarria izaten da honako arrazoi hauek direla eta: arloak berezko dinamika duenez, ikasleek erakusten dutena beste arloetan ez bezalakoa izaten delako; ikasleen nahiz ikastaldeen gaineko erabakiak hartzerakoan, musika-irakasleak tutoreak baino lehenagotik ezagutzen dituelako ikasleak eta haien garapena, etab.

Hain aberatsa eta eraginkorra da irakasle-taldeak jasotzen eta baliatzen duen informazio hori, non ezinbestekoa den funtzionamendua etengabe hobetzen jarraitzeko.

Baliabide materialak

Asko aldatzen da eskola batetik bestera musika-gelako baliabide materialen zerrenda. Dena dela, honako hauek izaten dira ohikoenak: Orff tresneria, teklatua, perkusio-tresnak, ordenagailua, proiektorea eta pantaila, txirulak, arbela (zuria nahiz pentagrama duena), musika-erreproduktzioarako bozgorailuak, jarrita edo etzanda egoteko aproposa den lurra, etab. Lurraren kasuan, behar-beharrezkoa da giro goxoa sortzeko eta modu erosoan jardun ahal izateko, ariketa edozein dela ere (erlaxazioa, lurrean eserita edo etzanda egiteko ariketak...).

Antzera gertatzen da sabaiarekin, askotan ez baita egokia izaten. Musika-gelan ez ezik, beste espazioetan ere soinua xurgatuko duena izan behar luke eskolan ordu asko ematen dira, eta, sortzen den soinua handia izanik, oihartzuna guztiz ekidingo duena da aproposena. Izan ere, arriskutsua da giro akustiko bortitzera oharkabean ohitzea eta horrek eragiten duen estresaz ez ohartzea.

Espazioaren antolaketa

Ikasgela espazio aldakorra izango da. Musika-saioaren eta jardunaren arabera, modu batean ala bestean erabiliko dugu, etekinik hoberena lortze aldera. Komenigarria da ahalik eta zabalera handieneko tartea edukitzea libre, jarduera askotan aske mugitzeko moduko espazioa beharko baita. Ikasgelaz kanpoko guneak ere oso baliagarriak izaten dira musika-jarduerak egiteko: eskolako nahiz herriko aretoak emanaldietarako, inguruko kaleak inguru soinuduna lantzeko, patioa dantza-saioetarako, eskolako beste taldeen ikasgelak erakustaldietarako, etab.

EBALUAZIOA

Ebaluazioa funtzio asko beteko dituen tresna da. Ezarri diren helburuen lorpen-maila ezagutzeko aukera emateaz gain, ikas-prozesuaren barruko hainbat elementuren berri emango du (ikasleak, familiak, irakasleak, ikastetxea, metodologia, baliabideak, jarduerak, etab.) eta elementu horiek elkarren artean nola uztartzen diren aztertuko du.

Ebaluazioak, ikasleen errendimendua neurtu eta kalifikatu ez ezik, prozesua gidatu ere egingo du jasotako datuetan oinarrituta. Ebaluazio soilak ez du irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egokiaren bermea emango, bestelako eragile batzuk ere tartean baitira. Baina, hala ere, nahitaezkoa izango da datu-bilketaren ondoren erabakiak hartzeko eta erabaki horiek zuzenak ala hobetu beharrekoak diren jakiteko.

Ebaluaziotik esperotako informazioa eskuratu ahal izateko, hainbat alderdiri erreparatu beharko zaio: nolako behaketa egingo den, prozesuaren zein unetan egingo den, zer ebaluatuko den eta zer tresna baliatuko diren horretarako.

Ebaluazioaren ezaugarriak

Lehenik eta behin, ebaluazioak banakakoa, globala eta jarraitua izan behar du.

- **Banakakoa:** ikasle bakoitzaren ezaugarrietan oinarritzen da.
- **Globala:** ikaslearen garapen osoa hartzen du aintzat.
- **Etengabea:** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak egiten duen bide osoa aztertuko du hasieratik bukaerara arte.

Horiez gain, beste ezaugarri batzuk ere izan behar ditu.

- **Integrala:** prozesuak bere baitan hartzen duen faktore oro ebaluatuko da.
- **Partekatua:** irakasle-taldeak familiekin elkarlanean egindakoa izango da.
- **Prestakuntza ematekoa:** emango duen informazioak planifikazioa doituko du ikasle bakoitzaren premien arabera egokitzapenak egin ahal izateko (bai helburuak arintzeko, bai aberasteko).

Ebaluazio-aldiak

Prozesuan zehar hiru dira ebaluazioa egiteko une nagusiak: hasierakoa, bitartekoa eta bukaerakoa.

- **Hasierakoa:** izenak dioen moduan, prozesuaren lehenengoetako urratsa da eta ikasleen abiapuntua zein den argituko du.
- **Bitartekoa:** jardunaren egokitasuna neurtzeko balio du, eta baita haren arabera aldaketak egiteko ere.
- **Bukaerakoa:** prozesuan jasotako guztia hartuko du kontuan, eta, datu-bilketa zabal horri buruzko hausnarketa eginda, baloratzea izango du helburu.

Zer eta nor ebaluatu

Irakaskuntza-ikaskuntza jardunaren oinarrizko hiru eragileak hartuko dira aintzat:

- **Ikaslearen ebaluazioa:** osotasunaren behaketan oinarrituta egingo da eta zehaztuko diren ebaluazio-adierazleak arabera.
- **Irakaslearen ebaluazioa:** prozesuak aurrera arakastaz egin dezan ezinbestekoa da irakasleak bere lana guztientzat egokia izango den moduan betetzea.
- **Prozesuaren ebaluazioa:** positiboa izan dena indartzeko eta aldatu beharrekoa aldatzeko balioko du. Horretarako, honako hauen egokitasunari begiratu behar zaie: jarduerak, materialak eta baliabideak, denboralizazioa, espazioa, metodologia, etab.

Hiru eragileen jarduna ebaluatzea, irakasleen ardura izateaz gain, ikasleei eta familiei ere badagokie. Beraz, hausnarketak ez dira noranzko bakarrekoak izango: prozesuan parte hartu duen bakoitzak egin beharko du dagokion ebaluazioa, izan besteean, izan berea (autoebaluazioa).

Ebaluaziorako baliabideak

Jardunaren nolakotasunak aginduko du ebaluazioa nola egin. Finkaturiko ebaluazio-adierazleetatik abiatuta, hainbat prozedura baliatuko dira helburuak zenbateraino lortu diren zehazteko: eguneroko behaketa, jarraipen-fitxak, ikasleen karpetak, ahozko eta idatzizko probak, kontrol-zerrendak, banakako nahiz taldeko lanak, autoebaluazio-fitxak, elkarrizketak, etab.

Ebaluatzen ez den oro debalatu egiten omen dela eta, ez dago aipatu beharrik ere irakasleek, ikasleek eta familiek egindako ebaluazioak ekarpen handia egingo diola irakaslearen jardunari. Informazio-iturri paregabea izanik, ikuspegi osoa eskainiko dio eta, aurrera begira, iparra markatuko du.

ETAPAKO HELBURUAK

1. Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea, eta komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta konfiantzan aurrera egitea.
2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea nahiz baliatzea, eta teknologia berriek ematen dituzten aukera ugarietan oinarrizkoenak aprobetxatzea.
3. Arte-adierazpenak hobeto ulertzeko, gozatzeko eta erreferente estetiko berriak izateko, haietan erabili ohi diren teknikak eta baliabideek kultura musikalean duten presentziaz kontziente izatea.
4. Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik eta horiek aberasteko asmoz, besteen sentimenduetan edo musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzea.
5. Proiektuetan emaitza egokiak lortzeko beharrezkoak diren prozedurak planifikatzea, ebaluatzea eta egokitzea, eta horrek dakartzan erronkez jabetzea.
6. Kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea eta funtzio horiek bizitzan duten presentziaz ohartzea ulertzeko zer garrantzi izan duen musikak historian zehar eta kulturaz kultura.
7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoan eta sozialean dituzten loturak azaltzea eta era kritikoan aztertzea, gure bizitzan duten eragina ulertzeko.
8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea.
9. Autoestimuan aurrera egiteko eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko, norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta jarduera horretan emandako denboran gozatzeko, norberaren eta taldearen hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpenaz jabetuz.
10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak eta arte-esperientziak trukatzeko norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea.

PROGRAMAZIOAK MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

- 1. Musikak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea**
 - 1.1 Entzunaldiak gogoz hartzen ditu.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.
 - 1.3 Ahots-erregistroak baliatzen ditu egoera ezberdinetan mezuak transmititzeko.
 - 1.4 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.
 - 1.5 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.6 Dantza libre baliatzen du soinuen eta estimuluen erantzun gisa.
- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea**
 - 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinua parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen oinarritzko kodea ezagutzen du.
 - 2.3 Instrumentu-praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Sortutako erritmo-laguntzak idazten ditu.
- 3. Arte-adierazpenek eta kultura musikalak duten loturaz kontziente izatea**
 - 3.1 Zarata eta kutsadura akustikoa bereizten ditu.
 - 3.2 Soinuaren ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.
 - 3.3 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.

- 3.4 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.
- 4. Irudimenaz eta sormenaz baliaturik eta horiek aberasteko asmoz, musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzea**
- 4.1 Galdera-erantzunak inprobisatzen ditu.
 - 4.2 Melodia-eskemak birsortzen ditu.
 - 4.3 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
 - 4.4 Akonpainamendu errazak sortzen ditu hots-jostailuekin.
- 5. Proiektuak gauzatzeak dakartzan erronkez jabetzea**
- 5.1 Ikaskideek sortutako konposizioak baloratzen ditu.
 - 5.2 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
 - 5.3 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
- 6. Kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea**
- 6.1 Kanten eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
 - 6.2 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanetan interesa jartzen du.
 - 6.3 Egoera jakin batzuei dagozkien musiken egokitasunaz jabetzen da.
- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoan eta sozialean dituzten loturak azaltzea**
- 7.1 Isiltasun-egoeretan gustura egoten da.
 - 7.2 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
 - 7.3 Tradiziozko musiken oinarritzko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
 - 7.4 Musika-tresna ez diren beste elementu askoren soinu-aukerak aztertzen ditu.
- 8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea**
- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
 - 8.2 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera egokia hartzen du.
 - 8.3 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
 - 8.4 Ikaskideen ekarpenak aintzakotzat hartzen ditu.
- 9. Norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta horretan emandako denboran gozatzea**
- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokutzen du.
 - 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
 - 9.3 Kantua, gorputz-mugimendua edo musika-tresnak baliatuz adierazpenarekin disfrutatzen du.

10. Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea

10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.

10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzen lanketan parte hartzen du.

10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.

10.4 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokatzeko du, obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa lortzea.
- Informazioa ulertzea.
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa eta hitzik gabekoa).
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Naturako eta gizarteko soinuak bereiztea.
- Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien izaera hautematea.
- Soinuaren altuera eta iraupena bereiztea.
- Grafia ez konbentzionalak eta konbentzionalak erabiltzea.
- Adi entzutea musika-konposizio laburrak.
- Inguruko musika-tresnak ikusiz eta entzunez ezagutzea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea.
- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen errepertorio bat ikastea.
- Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea, komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik.
- Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Perkusio txikiarekin interpretatu ahal izateko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea.
- Soinuzko estimuluei erantzuteko mugimendu-teknika oinarrizkoak praktikatzeko.
- Erritmo eta melodien eskemak ezagutzea eta haien gainean berriak inprobisatzea.
- Akonpainamendu erritmiko errazak sortzea abesti eta musika-piezentzat.
- Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Grafia ez konbentzionalak erabiltzea**
Altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrearen irakurketa eta idazketa.
- **Grafia konbentzionalak erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, pentagrama barruko notak (marrak eta tarteak), zuria, beltza, beltzeko isilunea, kortxea (binaka), konpasa eta marra zatitzaileak.

Entzumena

- **Naturako eta gizarteko soinuak bereiztea**
Zarata eta kutsadura akustikoa identifikatzea.
- **Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien izaera hautematea**
Gorputzak egiten dituen soinuak, inguruko soinuak (eskolakoak, etxeakoak, kalekoak...), soinu monofoniko eta polifonikoak, intonazio zehaztugabeko perkusio-tresna txikiak, etab.

- **Soinuaren altuera eta iraupena bereiztea**
Soinu-iturriak ikusita eta haien berezitasunak aztertuta, soinuak ezagutzea: batetik, goi- eta behe-erregistroko soinuak, eta, bestetik, soinu luzeak eta soinu laburrak.
- **Musika-konposizio laburrak adi entzutea**
Ohikoak diren konposizioak nahiz ikaskideek sorturikoak.
Konposizioen forma lantzeko erritmo-jolasak.
- **Inguruko musika-tresnak ikusiz eta entzunez ezagutzea**
Perkusio-tresna txikiak, herri-musikan erabiliak direnak (gurean nahiz beste batzuetan), hots-jostailuak, ikasleek jotzen dituztenak, etab.
- **Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea**
Isiltasun-egoerak era ludikoan lantzea eta isiltasunak bizipenetan, sentsazioetan, etab. dakartzan onurei erreparatzea.
Zarata eta kutsadura akustikoa nagusi diren egoerak sortuta, elkarbizitzan nola eragiten duten aztertzea.
Gune bakoitzean sortzen diren egoera akustikoez jabetzeko, eskola-eremuaren soinu-mapa egitea.
- **Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea**
Gogo-aldartean eragiten duen musika, gure inguruko nahiz beste batzuetako herri-musika, musika “klasikoa”, etab.

Kantua

- **Ahotsaren soinu-aukerak arakatzea**
Ahotsarekin onomatopeia-jolasak egitea, ipuinak girotzea eta ahots-erregistroak erabiltzea (gogo-aldartearekin edo transmititu beharreko mezuarekin zerikusia dutenak, esaterako).
- **Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea**
Abesteko ezinbestekoa den intonazioa lantzeko ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, oinarri harmonikoa duten melodia-eskemen errepikapena eta bitarte-melodikoen lanketa.
Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).
Keinuz lagunduriko kantak.
Abestiak buruz ikasteko teknikak.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien erreperitorio bat ikastea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuek ikastea.
Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Melodia-eskemak ezagutzea eta horien gainean berriak inprobisatzea**
Ariketa melodikoak: esaldien intonazioa, galdera-erantzunak, hitzezko esaldiei melodiak jartzea, grafia konbentzionaletan eta ez konbentzionaletan idatzirik dauden melodiak identifikatzea, melodiak grafia ez konbentzionalekin idaztea, etab.
- **Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea, komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera lantzea: beroketarako intonazio-ariketak, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko arduraren hartzea, etab.
- **Ahozko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Kantuek une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
Barneratutako kodeak erabiltzea.
Talde-jardueran bete beharreko arauetako begirunea lantzea.
- **Ahotsaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatutakoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Naturako soinuen eta objektuen soinu-aukerak arakatzea**
Musika-tresna ez diren beste elementu askoren soinu-aukerak: soinurik egiten duten, soinu horien funtzionaltasuna eta nolakotasuna...
- **Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**
Barneratutako grafia ez konbentzionalen eta konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan.
Erritmo-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako erritmo-laguntzak idaztea.

- **Perkusio txikiarekin interpretatu ahal izateko trebetasun oinarrikoak eskuratzea**
Perkusio-tresnak modu egokian erabiltzea: tresnak eta osagarriak nola hartu jakitea (tresna bera eta makila) eta gorputz-jarrera zaintzea.
- **Tresnen bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
Bakarkako nahiz taldeko instrumentazio errazak interpretatzea.
- **Erritmo-eskemak ezagutzea eta horien gainean berriak inprobisatzea**
Erritmo-ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.
- **Akonpainamendu erritmiko errazak sortzea abesti eta musika-piezetarako**
Hots-jostailuekin akonpainamendu errazak egitea aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.
- **Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean**
Nork bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko beharra lantzea.
Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzea eta horren zergatiaz eta balioaz jabetzea.
- **Tresnen adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurriera prestaturikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren soinu-aukerak arakatzea**
Gorputz-perkusioa lantzea.
Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).
- **Gorputzeko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Zuria, beltza eta kortxea oinarrian duten mugimendu-jolasak.
Jolasak biko eta hiruko konpasekin.
Norabidearen kontzeptuak: bikoteak, ezberra eta eskuina, biribila (birak, kanpoko eta barruko aldea, aurreko eta atzeko kideak...), etab.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako dantzen errepertorio bat ikastea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.
Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Mugimendu-teknika oinarrizkoak praktikatzea soinu-estimuluei erantzuteko**
Dantza errazen oinarrizko teknikak.
Dantza libre baliatzea hainbat iturritako soinuei nahiz bizidunon sentimenduei erantzuteko.
Abestien dramatizazioa.
Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta harenganako konfiantza indartzea.
Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
- **Gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurria prestatuturikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

BIGARREN MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espirtu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

- 1. Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea**
 - 1.1 Entzunaldiak gogoz hartzen ditu.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.
 - 1.3 Ahots-erregistroak baliatzen ditu egoera ezberdinetan mezuak transmititzeko.
 - 1.4 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.
 - 1.5 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.6 Dantza librea baliatzen du soinuen eta estimuluen erantzun gisa.
- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea**
 - 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinuaren parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen oinarrizko kodea ezagutzen du.
 - 2.3 Instrumentu-praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Biko eta hiruko konpasak bereizten ditu.
 - 2.5 Sortutako erritmo-laguntzak idazten ditu.
- 3. Arte-adierazpenek eta kultura musikalak duten loturaz kontziente izatea**
 - 3.1 Zarata eta kutsadura akustikoa bereizten ditu.
 - 3.2 Soinuaren ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.

- 3.3 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.
- 3.4 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.
- 4. Irudimenaz eta sormenaz baliaturik eta horiek aberasteko asmoz, musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzea**
- 4.1 Galdera-erantzunak inprobisatzen ditu.
- 4.2 Melodia-eskemak birsortzen ditu.
- 4.3 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
- 4.4 Akonpainamendu errazak sortzen ditu hots-jostailuekin.
- 5. Proiektuak gauzatzeko dakartzan erronkez jabetzea**
- 5.1 Ikaskideek sortutako konposizioak baloratzen ditu.
- 5.2 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
- 5.3 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
- 5.4 Kantuz, musika-tresnaz eta gorputzaz baliaturiko jardueretan beharrezkoak diren teknikak modu egokian barneratu ditu.
- 6. Kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea**
- 6.1 Kanta eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
- 6.2 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanetan interesa jartzen du.
- 6.3 Egoera jakin batzuei dagozkien musiken egokitasunaz jabetzen da.
- 6.4 Musika-formazio nagusiak ezagutzen ditu.
- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoarekin eta sozialarekin dituzten loturak azaltzea**
- 7.1 Isiltasun-egoeretan gustura egoten da.
- 7.2 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
- 7.3 Tradiziozko musiken oinarritzko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
- 7.4 Musika-tresna ez diren beste elementu askoren soinu-aukerak aztertzen ditu.
- 7.5 Hots-jostailu batzuen jatorria ezagutzen du.
- 8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denek ekimen eta ekarpenak baliatzea**
- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
- 8.2 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera egokia hartzen du.
- 8.3 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
- 8.4 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak ondo kudeatzen ditu.
- 9. Norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta horretan emandako denboran gozatea**
- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko du.

- 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
- 9.3 Kantuaren, gorputz-mugimenduaren edo musika-tresnen bidezko adierazpenarekin disfrutatzen du.
- 9.4 Taldean eroso aritzeko modua eta hobetzeko grina sortzeko asmoa duten jardunetan gozatzen du.

10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea

- 10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.
- 10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzen lanketan parte hartzen du.
- 10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.
- 10.4 Musika-ekitaldiekin loturik familiak dituen ohiturak naturaltasunez azaltzen ditu.
- 10.5 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokatzeko obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa lortzea eta gordetzea.
- Informazioa ulertzea.
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa eta hitzik gabekoa).
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Soinu-iturriak ikertzea eta naturako eta gizarteko soinuak bereiztea.
- Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien aukerak arakatzeko eta haien izaera hautematea.

- Soinuaren altuera, iraupena eta intentsitatea bereiztea eta grafia ez konbentzionalen bidez adieraztea.
- Grafia konbentzionalak erabiltzea.
- Adi entzutea musika-konposizio laburrak.
- Eskolako musika-tresnak ikusiz eta entzunez ezagutzea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Euskal kultura-inguruneko musika motak eta musika-ekitaldiak komentatzea.
- Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsaren, gorputzaren, objektuen eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea.
- Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen errepertorio bat ikastea.
- Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik.
- Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Perkusio txikiarekin nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin interpretatzeko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea.
- Soinuzko estimuluei erantzuteko oinarrizko mugimendu-teknika praktikatzea.
- Erritmo eta melodien eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean.
- Akonpainamendu erritmiko errazak sortzea abesti, dantza eta musika-piezentzat.
- Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Grafia konbentzionalak erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, pentagrama barruko notak (eskala gorantz nahiz beherantz), zuria, zuriko isilunea, beltza, beltzeko isilunea, kortxea, kortxeako isilunea, konpasa eta marra zatitzaileak, errepika-zeinuak.

Biko eta hiruko konpasak.
Erritmo-diktaketak.

- **Grafia ez konbentzionalak erabiltzea**
Soinuaren parametroen irakurketa eta idazketa.

Entzumena

- **Soinu-iturriak ikertzea eta naturako eta gizarteko soinuak bereiztea**
Zarata eta kutsadura akustikoa identifikatzea.
Soinu naturalak eta soinu artifizialak.
- **Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien aukerak arakatzea eta haien izaera hautematea**
Gorputzak egiten dituen soinuak, inguruko soinuak (eskolakoak, etxeakoak, kalekoak...), soinu monofoniko eta polifonikoak, eskolan nahiz etxean ezagutzen ditugun musika-tresnen soinuak, objektuekin ateratzen ditugun soinuak, etab.
Onomatopeiak: soinua aztertzea eta irudikapen grafikoen bidez lantzea (idazketa ez konbentzionala, letrak, marrazkiak...).
- **Soinuaren altuera, iraupena eta intentsitatea bereiztea**
Goi- eta behe-erregistroko soinuak, soinu luzeak eta soinu laburrak, eta soinu indartsu edo ozenak eta soinu ahulak.
- **Musika-konposizio laburrak adi entzutea**
Ohikoak diren konposizioak nahiz ikaskideek sorturikoak.
Erritmo-jolasak konposizioen formarekin.
- **Eskolako musika-tresnak ikusiz eta entzunez ezagutzea**
Eskolan erabiltzen ditugun tresnak: panderoa, tinbala, klabeak, triangelua, dunbala, kutxa txinatarra, xaflakoak (egurrezkoak eta metalezkoak), marakak...
Diskriminazio-ariketak.
- **Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea**
Isiltasun-egoerak era ludikoan lantzea eta isiltasunak bizipenetan, sententzioetan, etab. dakartzan onurei erreparatzea.
Zarata eta kutsadura akustikoa nagusi diren egoerak sortuta, elkarbizitzan nola eragiten duten aztertzea.
Eskola-eremuaren soinu-mapa egitea, guneko bakoitzean sortzen diren egoera akustikoez jabetzeko.
- **Euskal kulturako musika motak eta musika-ekitaldiak komentatzea**
Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerrari erreparatzea.

Egoeraren arabera musika-formazio nagusiak.
Musika-ekitaldiekin loturik ikasleek familian dituzten ohiturak.

- **Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea**
Gogo-aldartean eragiten duen musika, gure inguruko nahiz beste inguru batzuetako herri-musika, musika “klasikoa”, etab.

Kantua

- **Ahotsaren eta naturako soinuen soinu-aukerak arakatzea**
Ahotsarekin onomatopeia-jolasak egitea, ipuinak girotzea eta ahots-erregistroak erabiltzea (gogo-aldartearekin edo transmititu beharreko mezuarekin zerikusia dutenak, esaterako).
Naturak eskaintzen dituen soinuak aztertzea, deskribatzea eta baliatzea.
- **Abesti errazak ahots batez abestea eta buruz ikastea**
Abesteko ezinbestekoa den intonazioa lantzeko ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, oinarri harmonikoa duten melodia-eskemen errepikapena eta bitarte melodikoen lanketa.
Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).
Keinuz lagunduriko kantak.
Abestiak buruz ikasteko teknikak.
- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien errepertorio bat ikastea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen ikastea.
Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Melodia-eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean**
Ariketa melodikoak: esaldien intonazioa, galdera-erantzunak, hitzezko esaldiei jarritako melodiak, grafia konbentzionaletan eta ez konbentzionaletan idatzirik dauden melodiak identifikatzea, grafia ez konbentzionaletan melodiak idaztea...
- **Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**
Barneratutako grafia ez konbentzionalen eta konbentzionalen kodeak erabiltzea ahozko praktikan.
Melodia-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako melodiak idaztea.

- **Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea, komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera lantzea: beroketarako intonazio-ariketak, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko ardura hartzea.
- **Ahozko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Kantuak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia lantzea.
Barneratutako kodeak erabiltzea.
Talde-jardueran bete beharreko arauetako begirunea lantzea.
- **Ahotsaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurria prestatuak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Naturako soinuen eta objektuen soinu-aukerak arakatzea**
Musika-tresna ez diren beste elementu askoren soinu-aukerak: soinurik egiten duten, soinu horien funtzionaltasuna eta nolakotasuna, etab.
Objektuen soinu-aukerak aztertzea, eta, haiek baliaturik, erritmo-laguntzak egitea.
- **Partitura errazak idaztea eta irakurtzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**
Barneratutako grafia ez konbentzionalen eta konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan.
Erritmo-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako erritmo-laguntzak idaztea.
- **Perkusio txikiarekin interpretatu ahal izateko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea**
Perkusio-tresnak modu egokian erabiltzea: tresnak eta osagarriak nola hartu jakitea (tresna bera eta makila) eta gorputz-jarrera zaintzea.
- **Tresnen bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
Bakarkako nahiz taldeko instrumentazio errazak interpretatzea.
- **Erritmo-eskemak ezagutzea eta horien gainean berriak inprobisatzea**
Erritmo-ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.

- **Akonpainamendu erritmiko errazak sortzea abesti, dantza eta musika-piezetarako**
Eskolako tresnekin nahiz hots-jostailuekin akonpainamendu errazak egitea aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.
Dantzetan egiten ditugun pausoei erritmoarekin duten loturaz jabetzea, eta, hori oinarrian harturik, akonpainamendu errazak sortzea.
- **Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean**
Nork bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko beharra lantzea.
Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzea eta horren zergatiak eta balioak jabetzea.
- **Tresnen adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurriari prestatuak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren soinu-aukerak arakatzea**
Gorputz-perkusioa lantzea.
Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).
- **Gorputzeko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Askotariko mugimendu-jolasak.
Jolasak biko eta hiruko konpasekin.
Norabidearen kontzeptuak: bikoteak, ezkerre eta eskuine, biribila (birak, kanpoko eta barruko aldeak, aurreko eta atzeko kideak...), etab.
- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako dantzen errepertorio bat ikastea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.
Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Oinarrizko mugimendu-teknikak praktikatzea soinu-zuzenaren erantzuteko**
Dantza errazen oinarrizko teknikak.
Dantza librearen baliatzea hainbat iturritako soinuei nahiz bizidunon sentimenduei erantzuteko.
Abestien dramatizazioa.
Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta harenganako konfiantza indartzea.
Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.

- **Konfiantza izatea norberaren sorkuntzarako gaitasunean**
Jarduera bakoitzaren aurretik, talde-nortasunaren garrantziaren kontzientzia hartzea eta lantzea.
Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak lantzea.
- **Gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

HIRUGARREN MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espirtu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

- 1. Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea, eta pentsamendu kritikoan aurrera egitea**
 - 1.1 Entzunaldiak gogoz hartzen ditu.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.
 - 1.3 Ahots-erregistroak baliatzen ditu egoera ezberdinetan mezuak transmititzeko.
 - 1.4 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.
 - 1.5 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.6 Dantza librea baliatzen du soinuen eta estimuluen erantzun gisa.
- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea**
 - 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinuaren parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen oinarritzko kodea ezagutzen du.
 - 2.3 Instrumentuzko eta ahozko praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Biko eta hiruko konpasak bereizten ditu.
 - 2.5 Erritmo-eskemak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.6 Sortutako erritmo-laguntzak idazten ditu.

- 3. Arte-adierazpenetan erabili ohi diren teknikak eta baliabideek kultura musikalarekin duten loturaz kontziente izatea**
 - 3.1 Zarata eta kutsadura akustikoa bereizten ditu.
 - 3.2 Giro akustiko egokiarekiko sentsibilitatea garatzen ari da.
 - 3.3 Soinuaren ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.
 - 3.4 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.
 - 3.5 Musika baliatzen du ipuinak eta antzerkiak girotzeko.
 - 3.6 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.

- 4. Besteen sentimenduetan edo musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzean, trebetasun intelektuala, ekimena, irudimena eta sormena aberastea**
 - 4.1 Galdera-erantzunak inprobisatzen ditu.
 - 4.2 Melodia-eskemak birsortzen ditu.
 - 4.3 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
 - 4.4 Akonpainamendu errazak sortzen ditu hots-jostailuekin.
 - 4.5 Txirulaz ikasitako kantuak perkusio-tresnaz laguntzen ditu.
 - 4.6 Taldekideen ekarpenak begi onez hartzen ditu.

- 5. Proiektuetan emaitza egokiak lortzeko planifikatzearen, ebaluatzearen eta egokitzearen beharraz kontziente izatea, eta horrek guztiak dakartzan erronkez jabetzea**
 - 5.1 Ikaskideek sortutako konposizioak baloratzen ditu.
 - 5.2 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
 - 5.3 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
 - 5.4 Proiektuan eman beharreko pausoak ezagutzen ditu.
 - 5.5 Kantuz, musika-tresnaz eta gorputzaz baliaturiko jardueretan beharrezkoak diren teknikak modu egokian barneratu ditu.

- 6. Kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea eta funtzio horiek bizitzan duten presentziaz ohartzea**
 - 6.1 Kanten eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
 - 6.2 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanetan interesa jartzen du.
 - 6.3 Egoera jakin batzuei dagozkien musiken egokitasunaz jabetzen da.
 - 6.4 Osagarri diren ekintzekiko jarrera positiboa erakusten du.
 - 6.5 Musika-formazio nagusiak ezagutzen ditu.
 - 6.6 Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerari erreparatzen dio.
 - 6.7 Inguruko ohitura musikalei buruzko hausnarketa egiten du.

- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoarekin eta sozialarekin dituzten loturak azaltzea eta era kritikoan aztertzea, gure bizitzan duten eragina ulertzeko**
 - 7.1 Isiltasun-egoeretan gustura egoten da.

- 7.2 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
- 7.3 Tradiziozko musiken oinarriko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
- 7.4 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten eta ezagutzen ditu.

8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea

- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
- 8.2 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera egokia hartzen du.
- 8.3 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
- 8.4 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak ondo kudeatzen ditu.

9. Autoestimuan aurrera egiteko eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko, norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta jardueraren horretan emandako denboran gozatzea

- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko du.
- 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
- 9.3 Urduritasuna eragiten dioten egoerak identifikatzen ditu.
- 9.4 Urduritasun-egoerei aurre egiteko gero eta sendoagoak diren estrategiak erabiltzen ditu.
- 9.5 Kantuaren, gorputz-mugimenduaren edo musika-tresnen bidezko adierazpenarekin disfrutatzen du.
- 9.6 Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortzeko asmoa duten jardunetan gozatzen du.

10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea

- 10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.
- 10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzen lanketan parte hartzen du.
- 10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.
- 10.4 Musika-ekitaldiekin loturik familiak dituen ohiturak naturaltasunez azaltzen ditu.
- 10.5 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokatzeko du, obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea eta gordetzea.
- Informazio-iturrien egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea.
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Zereginen plangintza egitea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien aukerak arakatzeko eta haien izaera hautematea.
- Soinuaren altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea bereiztea, eta grafia konbentzionalen eta ez konbentzionalen bidez adieraztea.
- Adi entzutea estilo eta kultura askotariko musika-konposizioak, Euskal Herrikoak zein beste herrialde batzuetakoak.
- Musika-tresnak (eskolakoak, tradiziozkoak, pop eta rock musikakoak, orkestrakoak...) ikusiz eta entzunez ezagutzea eta ahots motak bereiztea.
- Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea.
- Euskal kulturako musika motak eta musika-ekitaldiak deskribatzea eta komentatzea.
- Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsaren, gorputzaren, naturako soinuen eta objektuen soinu-aukerak arakatzea.
- Ahots batez kantatzen diren abestiak, kanonak eta pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien eta dantzen erreperitorio bat ikastea.
- Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea, komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik.
- Grafia ez konbentzionalak erabilita ere, grafia konbentzionalak hartzea oinarrian partitura errazak idazteko eta irakurtzeko.
- Hainbat musika-tresnarekin eta txirularekin interpretatzeko oinarrizko trebetasunak eskuratzea.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea.
- Soinuzko estimuluei erantzuteko oinarrizko mugimendu-teknikak praktikatzea.
- Erritmo eta melodien eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean.
- Akonpainamendu erritmiko eta harmoniko errazak sortzea abesti, dantza eta pieza instrumentalezat.
- Musika-oinarri baten gainean, bakarlari moduan interpretatuz gozatzea.
- Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean.
- Ahotsaren, tresnen eta gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Grafia konbentzionalak erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, pentagrama barruko notak (eskala gorantz nahiz beherantz), pentagramaren azpiko notak (do eta re), zuria, zuriko isilunea, beltza, beltzeko isilunea, kortxea, kortxeako isilunea, puntua, konpasa, marra zatitzaileak eta bi puntuak (errepikapen-zeinuak).
Biko eta hiruko konpasak.
Erritmo-diktaketak.
Melodia-diktaketak.
- **Grafia ez konbentzionalak erabiltzea**
Soinuaren parametroen irakurketa eta idazketa.

Entzumena

- **Soinuaren eta hura sortzen duten iturrien aukerak arakatzea eta haien izaera hautematea**

Gorputzak egiten dituen soinuak, inguruko soinuak (eskolakoak, etxeakoak, kalekoak...), soinu monofoniko eta polifonikoak, eskolan nahiz etxean ezagutzen ditugun musika-tresnen soinuak, objektuekin ateratzen ditugun soinuak, etab.

Onomatopeiak: soinua aztertzea eta irudikapen grafikoen bidez lantzea (idazketa ez konbentzionala, letrak, marrazkiak...).

Zenbait jardueratan soinu aproposak aukeratzea eta haietaz baliatzea.
- **Soinuaren altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea bereiztea, eta grafia konbentzionalen eta ez konbentzionalen bidez adieraztea**

Lau parametroak soinuen deskribapenean ondo erabiltzea: goi- eta behe-erregistroko soinuak altuerari dagokionez, soinu luzeak eta laburrak iraupenaren arabera, soinu indartsu edo ozenak eta soinu ahulak intentsitateaz aritzeko, eta jatorriaren arabera soinuak tinbrea bereizteko.

Erritmo- eta melodia-diktaketak.

Jatorri ezberdina duten soinuen arteko diskriminazio-jolasak.

Soinuen asmakizun-jolasak, parametroen arabera.
- **Estilo eta kultura askotariko musika-konposizioak adi entzutea, Euskal Herrikoak zein beste herrialde batzuetakoak**

Ohikoak diren konposizioak nahiz ikaskideek sorturikoak.

Musika horien formaren azterketa: instrumentu- edo ahots-musikak diren, zenbat atalez osatuta dauden, esaldien neurriak zortzikoak diren... Ikaskideen familietan ohikoak diren musiken entzuketak.

Musika-entzuketara aktiboan bete beharreko arauetako begirunea lantzea.
- **Musika-tresnak (eskolakoak, tradiziozkoak, pop eta rock musikakoak, orkestrakoak...) ikusiz eta entzunez ezagutzea eta ahots motak bereiztea**

Informazio-bilduma egitea ikasleei erakargarri egiten zaizkien tresnetatik abiatuta: eskolakoak, musika-eskolakoak, familiakoak, herrikoak, hedabideetakoak, etab.

Tresnak taldekatzeko garaian kontuan har ditzakegun faktore ugariak.

Tresnen egiturek doinuetan duten eragina.

Diskriminazio-jolasak.
- **Isiltasunak musikan eta elkarbizitzan duen garrantzia balioestea**

Isiltasun-egoerak era ludikoan lantzea eta isiltasunak bizipenetan, sentsazioetan, etab. dakartzan onurei erreparatzea.

Zarata eta kutsadura akustikoa nagusi diren egoerak sortuta, elkarbizitzan nola eragiten duten aztertzea.

Eskola-eremuaren soinu-mapa egitea, gune bakoitzean sortzen diren egoera akustikoez jabetzeko.
Eguneroko giro akustikoa hobetuko duten zenbait jokabiderekin konpromisoa hartzea.

- **Euskal kulturako musika motak eta musika-ekitaldiak deskribatzea eta komentatzea**

Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerari erreparatzea.

Egoeraren arabera musika-formazio nagusiak.

Musika-ekitaldiekin loturik ikasleek familian dituzten ohiturak.

- **Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuteko interesa izatea**

Gogo-aldartean eragiten duen musika, gure inguruko nahiz beste inguru batzuetako herri-musika, musika “klasikoa”...

Musikarekiko interesa sortzeko pizgarriak: inguruko musikarien berri izatea, herriko musika-taldeekin nolabaiteko hartu-emana sortzea...

Kantua

- **Ahotsaren soinu-aukerak arakatzea**

Ahotsarekin onomatopeia-jolasak egitea, ipuinak girotzea eta ahots-erregistroak erabiltzea.

- **Ahots batez kantatzen diren abestiak eta kanonak interpretatzea eta buruz ikastea**

Abesteko ezinbestekoa den intonazioa lantzeko ariketak: bitarteak, eskalak...

Ahotsa berotzeko oinarrizko ariketak.

Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).

Kanon errazak kantu polifonikoa lantzen hasteko.

Keinuz lagunduriko kantak.

Abestiak buruz ikasteko teknikak.

Taldeko nahiz bakarkako interpretazioan oinarrizkoak diren arauak barneratzea.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako abestien errepertorio bat ikastea**

Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuak ikastea.

Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.

- **Melodia-eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean**
Ariketa melodikoak: esaldien intonazioa, galdera-erantzunak, hitzezko esaldiei jarritako melodiak, grafia konbentzionaletan eta ez konbentzionaletan idatzirik dauden melodien identifikazioa, etab.
- **Akonpainamendu harmoniko errazak sortzea abesti, dantza eta pieza instrumentaletarako**
Ahots-melodiak sortzea txirulaz ikasitako abestietarako nahiz bestelako kantuetarako.
- **Grafia ez konbentzionalak erabilia ere, grafia konbentzionalak hartzea oinarrian partitura errazak idazteko eta irakurtzeko**
Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea ahozko praktikan (landuko diren kantuen partiturak, esaterako).
Melodia-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako melodiak idaztea.
- **Ahotsa zaintzearen garrantzia aintzakotzat hartzea, komunikatzeko tresna eta bitarteko naturala den aldetik**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera lantzea: beroketarako intonazio-ariketak, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko ardura hartzea.
- **Ahozko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Kantuak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia lantzea.
Barneratutako kodeak erabiltzea.
Talde-jardueran bete beharreko arauetako begirunea lantzea.
- **Ahotsaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Naturako soinuen eta objektuen soinu-aukerak arakatzea**
Musika-tresna ez diren beste elementu askoren soinu-aukerak: soinurik egiten duten, soinu horien funtzionaltasuna eta nolakotasuna...
Objektuek ematen dituzten soinu-aukerak aztertzea, eta, haiek baliaturik, erritmo-laguntzak egitea.

- **Grafia ez konbentzionalak erabilia ere, grafia konbentzionalak hartzea oinarrian partitura errazak irakurtzeko eta idazteko**
 Barneratutako grafia ez konbentzionalen eta konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan (landuko diren abestien partituretan, esaterako).
 Erritmo-eskemak irakurtzea eta idaztea.
 Sortutako erritmo-laguntzak idaztea.
- **Hainbat musika-tresnarekin eta txirularekin interpretatu ahal izateko trebetasun oinarrizkoak eskuratzea**
 Perkusio-tresnak modu egokian erabiltzea: tresnak eta osagarriak nola hartu jakitea (tresna bera eta makila) eta gorputz-jarrera zaintzea.
 Txirula jotzeko teknikak lantzea gradueltasunaren printzipioan oinarriturik: eskuin- eta ezker-eskua, arnasketa, gorputz-jarrera, lan-ohiturak, praktika egokiaren arauak, noten lanketa (si-la-sol, do´re´ eta mi-re), etb.
- **Tresnen bidezko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
 Bakarkako nahiz taldeko instrumentazio errazak interpretatzea.
- **Pieza instrumental errazak interpretatzea eta buruz ikastea**
 Txirulaz pieza errazak jotzea (gitarra edo teklatuaren laguntzaz, esaterako).
 Buruz ikasteko teknikak erabiltzea.
 Taldeko nahiz bakarkako interpretazioan oinarrizkoak diren arauak barneratzea.
- **Erritmo-eskemak inprobisatzea, aurrez emandako musika-oinarrien gainean**
 Erritmo-ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.
 Txirularekin edo kantuarekin landutako abestietan erritmo-laguntzak egitea inprobisazioz.
- **Akonpainamendu erritmiko errazak sortzea abesti, dantza eta musika-piezetarako**
 Eskolako tresnekin nahiz hots-jostailuekin akonpainamendu errazak egitea aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.
 Dantzetan egiten ditugun pausoek erritmoarekin duten loturaz jabetzea eta, hori oinarrian harturik, akonpainamendu errazak sortzea.

- **Musika-oinarri baten ganean, bakarleri moduan interpretatuz gozatzea**
Urduritasuna eragiten duten egoerak identifikatzea eta haiekin bizitzen ikasteak ematen duen aukeraz jabetzea.
Taldekideekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.
- **Konfiantza izatea norberaren musika-sorkuntzarako gaitasunean**
Nork bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko beharra lantzea.
Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzea eta horren zergatiaz eta balioaz jabetzea.
- **Tresnen adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestaturikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren soinu-aukerak arakatzea**
Gorputz-perkusioa lantzea.
Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).
- **Gorputzeko interpretazioan koordinatzea eta sinkronizatzea**
Askotariko mugimendu-jolasak.
Jolasak biko eta hiruko konpasekin.
Norabidearen kontzeptuak: bikoteak, ezkerre eta eskuina, biribila (birak, kanpoko eta barruko aldea, aurreko eta atzeko kideak...), etab.
- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako dantzen errepertorio bat ikastea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.
Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Oinarrizko mugimendu-teknikak praktikatzea soinu-zko estimuluei erantzuteko**
Dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzea.
Dantza libre baliatzea hainbat iturritako soinuei nahiz bizidunon sentimenduei erantzuteko.
Abestien dramatizazioa.
Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta harenganako konfiantza indartzea.
Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.

- **Konfiantza izatea norberaren sorkuntzarako gaitasunean**
Jarduera bakoitzaren aurretik, talde-nortasunaren garrantziaren kontzientzia hartzea eta lantzea.
Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak lantzea.
- **Gorputzaren adierazpenarekin disfrutatzea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

LAUGARREN MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

1. **Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea, eta pentsamendu kritikoan aurrera egitea**
 - 1.1 Entzunaldietan gozatzeko baliabideak dauzka.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.
 - 1.3 Interpretazioan eroso sentitzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen ari da.
 - 1.4 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.

- 1.5 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.6 Dantza libre baliatzen du soinuen eta estimuluen erantzun gisa.
- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea, eta teknologia berriek ematen dituzten aukera ugarietz jabetzea**
 - 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinuen parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen kodearen ezagutzan aurrera egiten ari da.
 - 2.3 Instrumentuzko eta ahozko praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Musika aitzakia hartuta, hainbat iturritan informazioa bilatzen du.
- 3. Arte-adierazpenetan erabili ohi diren teknikak eta baliabideek kultura musikalarekin duten loturaz kontziente izatea**
 - 3.1 Giro akustiko egokiarekiko sentsibilitatea garatzen ari da.
 - 3.2 Soinuen ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.
 - 3.3 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.
 - 3.4 Musika baliatzen du ipuinak eta antzerkiak girotzeko.
 - 3.5 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.
- 4. Besteen sentimenduetan edo musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzean, trebetasun intelektuala, ekimena, irudimena eta sormena aberastea**
 - 4.1 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
 - 4.2 Koreografiak sortzen ditu.
 - 4.3 Akonpainamendu errazak sortzen ditu.
 - 4.4 Txirulaz ikasitako kantuak perkusio-tresnaz laguntzen ditu.
 - 4.5 Taldekideen ekarpenak begi onez hartzen eta aberasten ditu.
- 5. Proiektuetan emaitza egokiak lortzeko planifikatzearen, ebaluatzearen eta egokitzearen beharrez kontziente izatea, eta horrek guztiak dakartzan erronkez jabetzea**
 - 5.1 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
 - 5.2 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
 - 5.3 Barneraketa-prozesuetan eman beharreko pausoak ezagutzen ditu.
 - 5.4 Kantuz, musika-tresnaz eta gorputzaz baliaturiko jardueretan beharrezkoak diren teknikak modu egokian barneratu ditu.
 - 5.5 Koreografiak asmatzeko beharrezkoak diren urratsak ezagutzen ditu.
- 6. Kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea eta funtzio horiek bizitzan duten presentziaz ohartzea**
 - 6.1 Kanten eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
 - 6.2 Musika ugariaren ibilbideaz hausnartzen gogoz jarduten da.

- 6.3 Musika historian eta geografian kokatzen du.
 - 6.4 Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzen da.
 - 6.5 Ohiko jardunaren ekintza osagarrien aurrean jarrera positiboa erakusten du.
 - 6.6 Musika-formazio nagusiak ezagutzen ditu.
 - 6.7 Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerari erreparatzen dio.
 - 6.8 Inguruko ohitura musikalei buruzko hausnarketa egiten du.
- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoarekin eta sozialarekin dituzten loturak azaltzea eta era kritikoan aztertzea, gure bizitzan duten eragina ulertzeko**
- 7.1 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
 - 7.2 Eguneroko giro akustikoa hobetzeko zenbait jokabiderekonpromisoa hartzen du.
 - 7.3 Tradiziozko musiken oinarrizko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
 - 7.4 Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzen da.
 - 7.5 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten eta ezagutzen ditu.
- 8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denek ekimen eta ekarpenak balioestea**
- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
 - 8.2 Besteen lanekiko iritzia edozein izanda ere, egilearen lana balioesten du.
 - 8.3 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera egokia hartzen du.
 - 8.4 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
 - 8.5 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak ondo kudeatzen ditu.
 - 8.6 Eskolako festa-giroan, musikaren inguruko jardueretan gogoz parte hartzen du.
 - 8.7 Musikak eta dantzak elkarbizitzari egiten dioten ekarpenaz jabetzen da.
- 9. Autoestimuan aurrera egiteko eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko, norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta jardueraren horretan emandako denboran gozatzea**
- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko du.
 - 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
 - 9.3 Urduritasuna eragiten dioten egoerak identifikatzen ditu.
 - 9.4 Urduritasun-egoerei aurre egiteko gero eta sendagoak diren estrategiak erabiltzen ditu.
 - 9.5 Kantuaren, gorputz-mugimenduaren edo musika-tresnen bidezko adierazpenarekin disfrutatzen du.

9.6 Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortzeko asmoa duten jardunetan gozaten du.

10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak eta arte-esperientziak trukatzeko norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea

10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.

10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzen lanketan parte hartzen du.

10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.

10.4 Musika-jarduerak baliatzen ditu eskolako kideekin erlazionatzeko.

10.5 Musika-ekitaldiekin loturik familiak dituen ohiturak naturaltasunez azaltzen ditu.

10.6 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokatu du, obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea eta gordetzea.
- Informazio-iturrien egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideien, zereginen eta proiektuen plangintza eta analisiak egitea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Inguruneko soinuak ikertzea.
- Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea.
- Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko.
- Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta haien arteko ezberdintasunez jabetzea.
- Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea.
- Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa.
- Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea, komentatzea eta balioestea.
- Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsa, gorputzaren perkusioa eta musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abesti eta dantzen errepertorioa eskuratzea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea.
- Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea: pentagrama, notak, figura eta isiluneak, sol klabea, konpasa...
- Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Abesti eta pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea.
- Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta.
- Estimuluei erantzuteko inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin.
- Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik.
- Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea.
- Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, notak (do₄-tik fa₅-era arte), nota-irudiak eta isiluneak (biribila, zuria, beltza, kortxea eta kortxeaerdia), armadurako eta noten aurreko alterazioak (bemola, sostenitua eta bekoadroa), puntua, errepika-zeinuak (bi puntu, *da capo* eta *fine*), konpasa, marra zatitzaileak, anakrusia, ligatura (balio- eta espresio-ligatura), tempoak (*andante*, *moderato* eta *allegro*), tempo-argibideak (*ritardando*, *rallentando* eta *accelerando*), intentsitate-argibideak (*crescendo* eta *diminuendo*), ñabardura dinamikoak (*forte* eta *piano*), kalderoia eta artikulazio motak (ligatua eta pikatua).
Biko, hiruko eta lauho konpasak.
Erritmo- eta melodia-diktaketak.
- **Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko**
Musika-formak.
Esaldien neurriak.
Dinamika eta agogika.
- **Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea**
Barneratutako konbentzio-zeinuetan oinarritzen diren partiturak erabiltzea (kantu nahiz tresna bidezko interpretazioan, adibidez).
- **Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa**
Informazioa bilatzen, identifikatzen, sailkatzen eta laburtzen ikastea.
Lortutako informazioaren berri ematea.
Informazio-iturrien egokitasunaren inguruko hausnarketa egitea.
Ezezagunak zaizkigun musikak aitzakia hartuta, beste kultura batzuetako adierazpenak partekatzea.

Entzumena

- **Inguruneko soinuak ikertzea**
Eskola-eremuaren, etxearen eta kalearen soinu-mapa egitea, gune bakoitzean sortzen diren egoera akustikoez jabetzeko.
Soinuak ikertzeko landutako parametroetan oinarritzea: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea.
Eguneroko giro akustikoa hobetuko duten zenbait jokabiderekin konpromisoa hartzea.
Zenbait jardueratan soinu aproposak aukeratzea eta haietaz baliatzea.

- **Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta haien arteko ezberdintasunez jabetzea**
Hainbat garaitako musika.
Herri-musika.
Musika akademikoa.
Ikaskideen familietan ohikoak diren musikak.
Musika deskribatzeko eta sailkatzeko prozedurak lantzea.
Musika-entzuketara aktiboan bete beharreko arauetara joatea.
- **Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea**
Tresnak taldekatzeko garaian kontuan hartuko ditugun faktore ugariak aztertzea: soinua nola ateratzen duen, nola jotzen den, zer materialez eginda dagoen...
Faktore horiek guztiek soinuan nola eragiten duten hausnartzea.
Ahotsen sailkapen orokorra egitea (gizonezkoena eta emakumezkoena).
Diskriminazio-jolasak.
- **Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea**
Errespetuzko begirada lantzea.
Isiltasunak duen garrantzia balioestea.
Emanaldietan orokorrak izan ohi diren arauak.
Jasotakoak eragin duen iritzia edozein izanda ere, egilearen lana baloratzen ikastea.
Kontzertu pedagogikoetara joatea.
- **Kontzertu eta musika-emanaldiak entzutea, komentatzea eta balioestea**
Kontzertu eta emanaldiei buruzko iritzi kritikoa eraiki ahal izateko baliabideak eskuratzea.
Kontzertuetara joatea.
Eskolara musikariak ekartzea.
Ikastaldeen arteko kontzertuak prestatzea, eskaintzea eta komentatzea.
- **Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea**
Musika entzuteko eta entzundakoarekin gozatu ahal izateko baliabideak eskuratzea.
Musika historian eta geografian kokatzea.
Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzea.
Musikarekiko interesa sortuko duten pizgarriak baliatzea: inguruko musikarien berri izatea, herriko musika-taldeekin nolabaiteko hartu-emana sortzea, musika-formazioak osatzea...

Kantua

- **Ahotsa erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan**
Ahotsak ematen dituen aukerez jabetzea eta horiek baliatzea.
Ahotsarekin musika-laguntzak egiteaz gain, girotzeko jardueretan erabiltzea.
- **Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak interpretatzea**
Ahotsa berotzeko oinarrizko ariketak.
Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).
Polifonia: kanonak, bi ahotsetarako konposizioak, etab.
Keinuz lagunduriko kantak.
Abestiak buruz ikasteko teknikak erabiltzea.
Taldeko nahiz bakarkako interpretazioan oinarrizkoak diren arauak barneratzea.
- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abesti-errepertorioa eskuratzea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen ikastea.
Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Ahotsarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**
Ahotsak ematen dituen aukerak ezagutzea.
Ahotsak dituen mugez konturatzeko.
Ahotsa baliatzea hainbat egoerari aurre egiteko (egoera errealetan nahiz apropos sorturikoetan).
- **Abesti gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilita**
Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea ahozko praktikan (landuko diren kanten partiturak, esaterako).
Melodia-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako melodiak idaztea.
- **Ahotsa zaintzeko ohitura hartzea**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren neurriak hartzea: beroketarako intonazio-ariketak egitea, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko ardura hartzea.
- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Ahotsak ematen dituen aukerak lantzeko motibagarriak diren jarduerak.
Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: beldurra baretzeko eta ausardia

sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailetan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.

- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**

Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.

Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**

Txirula eta musika-gelan dauzkagun musika-tresna batzuk.

Ikasleek jotzen dituzten musika-tresnak.

Objektuek ematen dituzten soinu-aukerak aztertzea, eta, haiek baliaturik, erritmo-laguntzak egitea.

- **Pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**

Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan (landuko diren abestien partiturak, esaterako).

Erritmo-eskemen irakurketa eta idazketa.

Sortutako erritmo-laguntzen idazketa.

Txirula jotzeko gaitasuna zabaltzea eta teknikak sendotzea gradualtasunaren printzipioan oinarriturik.

Melodia ezagunen txirularako transkripzioak interpretatzea (partitura eskainita, imitazio bidez ala entzumenaz baliaturik doinuak identifikatuta).

Buruz ikasteko teknikak.

Urduritasuna eragiten duten egoerak identifikatzea, haiekin bizitzen ikasteak ematen duen aukeraz jabetzea, eta aurrera egiteko estrategiak lantzea.

Bakarkako interpretazioan oinarritutako diren arauak barneratzea.

Taldekideekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**

Erritmo-ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.

Inprobisazio-lanetan koordinazioz aritzeko oinarri baten beharraz jabetzea.

Txirularekin edo kantuarekin landutako abestietan erritmo-laguntzak egitea inprobisazioz.

Dantzetan egiten ditugun pausoek erritmoarekin duten loturaz jabetzea eta, hori oinarrian harturik, akonpainamenduak inprobisatzea.

- **Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea**

Akonpainamendu errazak sortzea eskolako tresnekin, perkusio txikiarekin, hots-jostailuekin zein bat-batean inprobisatutako tresnekin, aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.

Askotariko musika-lanen instrumentazioak.

Taldeko interpretazioan oinarritzkoak diren arauak barneratzea.

Taldekideekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea**

Musika-tresnak guztiok zaindu beharrekoak direla jabetzea.

Norberarenak izan nahiz guztionak izan, musika-tresnak egoki erabiltzeko arauak ezagutzea eta errespetatzea.

- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**

Musika-tresnekin interpretazio-aukerak lantzeko jarduera motibagarriak.

Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: beldurra baretzeko eta ausardia sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailtan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.

- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**

Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak prestatzea: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.

Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren perkusioa akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**

Gorputz-perkusioa.

Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).

Askotariko musika-lanen laguntzak.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko dantza-errepertorioa eskuratzea**
 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.
 Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.
 Eskolako festa-giroan ohikoak diren dantzetan espontaneotasunez parte hartzea (adina, ikasmaila, lagun-taldea, etab. edozein dela ere).
- **Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta**
 Musiken jatorria eta ezaugarriak lantzea (gurean ohikoak izaten ez diren erritmoak, melodiak...).
 Koreografiak asmatzeko urratsak ematea (musikaren forma identifikatzea, erritmo-neurriak argitzea, esaldiak bereiztea...).
 Ikasgelan lantaldeak osatzeko garaian sortzen diren ezinegonak modu naturalean bideratzea.
 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak lantzea.
 Dantzak elkarbizitzari egiten dion ekarpenaz jabetzea.
- **Gorputzarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**
 Dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzea.
 Dantza libre erabiltzea soinuen nahiz bizidunon sentimenduen erantzun gisa.
 Abestien dramatizazioa.
 Askotariko mugimendu-jolasak.
 Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea, onartzea eta harenganako konfiantza indartzea.
 Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
- **Gorputza zaintzeko ohitura hartzea**
 Norberaren nahiz taldekoen gorputza zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera barneratzea.
 Esfortzu fisikoa beharrezkoa den egoeretan ahalmena ondo neurtzea (nork bere gaitasunei eta mugei tamaina hartuta).
 Gorputza mugimendu bidezko espresiorako erabiltzeko garaian, beroketa-ariketak kontuan hartzea.
- **Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik**
 Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzea.
 Dantzen jatorriari buruz hausnartzea eta herrien izatearekin lotzea.
 Herrien historian zehar dantzek izan duten funtzionaltasunaz hausnartzea.

Eskolako familiek, nork bere kulturatik, egin ditzaketen ekarpenak baliatzea.

Dantza ahalik eta sendoen errotzea eskola-ohituretan, guztion elkargune izan dadin.

- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Gorputz-mugimenduak ematen dituen aukerak lantzeko jarduera motibagarriak.
Ekintzen aurretik, lanketa egitea talde-nortasunarekiko kontzientzia indartzeko eta eroso aritzeko.
Gorputz-mugimenduaren bidezko espresioak gizakion beharretan duen garrantziaz hausnartzea.
- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

BOSGARREN MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

1. **Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea, eta komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta konfiantzan aurrera egitea**
 - 1.1 Entzunaldietan gozatzeko baliabideak dauzka.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.

- 1.3 Egoerak egoera eta helburuak helburu, musika aukeratzeko irizpide argiak ditu.
 - 1.4 Interpretazioan eroso sentitzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen ari da.
 - 1.5 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.
 - 1.6 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.7 Dantza librea baliatzen du soinuaren eta estimuluen erantzun gisa.
- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea, eta teknologia berriek ematen dituzten aukera ugarietan oinarrizkoenak aprobetxatzea**
- 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinuaren parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen kodea ezagutzen eta baliatzen du.
 - 2.3 Instrumentuzko eta ahozko praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Musika aitzakia hartuta, hainbat iturritan informazioa bilatzen du.
 - 2.5 Informazioa lortzeko, iturrien egokitasunari buruzko hausnarketa egiten du.
 - 2.6 Lortutako informazioa modu askotan kudeatzen du, helburuaren arabera.
- 3. Arte-adierazpenak hobeto ulertzeko, gozatzeko eta erreferente estetiko berriak izateko, haietan erabili ohi diren teknikak eta baliabideek kultura musikalean duten presentziaz kontziente izatea**
- 3.1 Giro akustiko egokiarekiko arduraz jokatzeko du.
 - 3.2 Soinuaren ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.
 - 3.3 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.
 - 3.4 Musikak, gainerako arte-adierazpenekin batera, historian eta geografian zehar izan duen bilakaeraz kontziente da.
 - 3.5 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.
- 4. Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenez baliaturik eta horiek aberasteko asmoz, besteen sentimenduetan edo musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzea**
- 4.1 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
 - 4.2 Koreografiak sortzen ditu.
 - 4.3 Akonpainamendu errazak sortzen ditu.
 - 4.4 Txirulaz ikasitako kantuak perkusio-tresnaz laguntzen ditu.
 - 4.5 Taldekideen ekarpenak begi onez hartzen eta aberasten ditu.

- 5. Proiektuetan emaitza egokiak lortzeko prozedurak planifikatzea, ebaluatzea eta egokitzea eta horrek dakartzan erronkez jabetzea**
 - 5.1 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
 - 5.2 Aldaketak egitea komenigarri dela bistakoa bada, ez du hori onartzeko arazorik.
 - 5.3 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
 - 5.4 Kideen kritika modu eraikitzailean jasotzen du.
 - 5.5 Barneraketa-prozesuetan eman beharreko pausoak ezagutzen ditu.
 - 5.6 Kantuz, musika-tresnaz eta gorputzaz baliaturiko jardueretan beharrezkoak diren teknikak modu egokian erabiltzen ditu.
 - 5.7 Proiektuetan bete beharreko urratsak ezagutzen ditu.

- 6. Musikak historian zehar eta kulturaz kultura zer garrantzi izan duen ulertzeko, kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea eta funtzio horiek bizitzan duten presentziaz ohartzea**
 - 6.1 Kanten eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
 - 6.2 Musika ugariaren ibilbideaz hausnartzen gogoz jarduten da.
 - 6.3 Musika historian eta geografian kokatzen du.
 - 6.4 Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzen da.
 - 6.5 Kulturaz kultura musikaren ezaugarri nagusiak bereizten ditu.
 - 6.6 Ekintza osagarrien aurrean jarrera positiboa erakusten du.
 - 6.7 Musika-formazio nagusiak ezagutzen ditu.
 - 6.8 Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerari erreparatzen dio.
 - 6.9 Inguruko ohitura musikalei buruzko hausnarketa gogoz egiten du.

- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoarekin eta sozialarekin dituzten loturak azaltzea eta era kritikoan aztertzea, gure bizitzan duten eragina ulertzeko**
 - 7.1 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
 - 7.2 Eguneroko giro akustikoa hobetzeko zenbait jokabiderekonpromisoa hartzen du.
 - 7.3 Tradiziozko musiken oinarritzko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
 - 7.4 Soinuak inguru fisikoan kokatzen ditu.
 - 7.5 Musika-tresnen jatorriak ezagutzen ditu.
 - 7.6 Musika-tresnak ezaugarrien arabera taldekatzen ditu.
 - 7.7 Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzen da.
 - 7.8 Musikaren eta herri-izaeraren arteko lotura ikusten du.
 - 7.9 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten eta ezagutzen ditu.

8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea

- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
- 8.2 Jasotakoak eragiten dion iritzia edozein izanda ere, egilearen lana baloratzen du.
- 8.3 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera egokia hartzen du.
- 8.4 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
- 8.5 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak ondo kudeatzen ditu.
- 8.6 Taldeak bere lanari egiten dion kritika jasotzeko eta kudeatzeko prest egoten da.
- 8.7 Eskolako festa-giroan, musikaren inguruko jardueretan gogoz parte hartzen du.
- 8.8 Musikak eta dantzak elkarbizitzari egiten dioten ekarpenaz jabetzen da.

9. Autoestimuan aurrera egiteko eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko, norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta jarduera horretan emandako denboran gozatzea, norberaren eta taldearen hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpenaz jabetuz

- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko du.
- 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
- 9.3 Urduritasuna eragiten dioten egoerak identifikatzen ditu.
- 9.4 Urduritasun-egoerei aurre egiteko gero eta sendagoak diren estrategiak erabiltzen ditu.
- 9.5 Interpretazioak sortzen dituen oztopoak gaindituta, poza adierazten du.
- 9.6 Kantuaren, gorputz-mugimenduaren edo musika-tresnen bidezko adierazpenarekin disfrutatzen du.
- 9.7 Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortzeko asmoa duten jardunetan gozatzen du.

10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak eta arte-esperientziak trukatzeko norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea.

- 10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.
- 10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzetan parte hartzen du.
- 10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.
- 10.4 Musika-jarduerak baliatzen ditu eskolako kideekin erlazionatzeko.
- 10.5 Musika-ekitaldiekin loturik familian dituen ohiturak naturaltasunez azaltzen ditu.

10.6 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokaten du, obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideien, zereginen eta proiektuen plangintza eta analisiak egitea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Inguruneko soinuak ikertzea eta zarata eta kontaminazio akustikoa hautematea.
- Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea.
- Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko.
- Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta haien bereizgarritasun batzuk ezagutzea.
- Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea eta ezaugarrien arabera sailkatzea.

- Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa.
- Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea, komentatzea eta balioestea.
- Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsa, gorputzaren perkusioa eta musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abesti eta dantzen errepertorioa eskuratzea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea.
- Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea: pentagrama, notak, figura eta isiluneak, sol klabea, konpasa...
- Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Abesti eta pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea.
- Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta.
- Estimuluei erantzuteko inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin.
- Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik.
- Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea.
- Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, notak (do₄-tik fa₅-era arte), nota-irudiak eta isiluneak (biribila, zuria, beltza, kortxea eta kortxeaerdia), armadurako eta noten aurreko alterazioak (bemola, sostenitua eta bekoadroa), enarmonia, moduak (maiorra eta minorra), puntua, errepika-zeinuak (bi

puntu, *da capo* eta *fine*), konpasa, marra zatitzaileak, anakrusia, ligatura (balio- eta espresio-ligatura), tempoa (*andante*, *moderato* eta *allegro*), tempo-argibideak (*ritardando*, *rallentando* eta *accelerando*), intentsitate-argibideak (*crescendo* eta *diminuendo*), ñabardura dinamikoak (*forte* eta *piano*), kalderoia eta artikulazio motak (ligatua eta pikatua).

Biko, hiruko, lau, bosteko, seiko eta zazpiko konpasak.

Erritmo- eta melodia-diktaketak.

Abestien transkripzioak.

- **Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko**
Musika-formak.
Esaldien neurriak.
Dinamika eta agogika, tempoa, artikulazioa, modua (maiorra eta minorra), etab.
- **Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea**
Barneratutako konbentzio-zeinetan oinarritzen diren partiturak erabiltzea (kantu nahiz tresna bidezko interpretazioan, adibidez).
- **Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa**
Informazioa bilatzen, identifikatzen, sailkatzen eta laburtzen ikastea.
Lortutako informazioaren berri ematea.
Informazio-iturrien egokitasunaren inguruko hausnarketa egitea.
Ezezagunak zaizkigun musikak aitzakia hartuta, beste kultura batzuetako adierazpenak partekatzea.

Entzumena

- **Inguruneko soinuak ikertzea eta zarata eta kontaminazio akustikoa hautematea**
Eskola-eremuan, etxean, kalean eta beste hainbat gunetan sortzen diren egoera akustikoez jabetzea.
Kontaminazio akustikoarekiko jarrera kritikoa edukitzea.
Entzumen-galera sor dezaketen egoerek dakartzaten arriskuez jabetzea.
Soinuak ikertzeko aurretik landutako parametroetan oinarritzea: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea.
Eguneroko giro akustikoa hobetuko duten zenbait jokabiderekon konpromisoa hartzea.
- **Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta haien bereizgarritasun batzuk ezagutzea**
Hainbat garaitako musika.
Herri-musika.

Musika akademikoa.

Lkaskideen familietan ohikoak diren musikak.

Musika-konposizioak berezi egiten dituzten elementuak.

Musika deskribatzeko eta sailkatzeko beharrezkoak diren prozedurak lantzea.

Musika-entzuketa aktiboan bete beharreko arauetako begirunea lantzea.

- **Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea eta ezaugarrien arabera sailkatzea**

Tresnak taldekatzeko garaian kontuan hartuko diren faktore ugariak aztertzea: soinua nola ateratzen duen, nola jotzen den, zer materialez eginda dagoen...

Faktore horiek guztiek soinuari nola eragiten dioten hausnartzea.

Ahotsen sailkapen orokorra egitea (gizonezkoena eta emakumezkoena).

Diskriminazio-jolasak.

- **Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea**

Errespetuzko begirada lantzea.

Isiltasunak duen garrantzia balioestea.

Emanaldietan orokorrak izan ohi diren arauak barneratzea.

Jasotakoak eragin duen iritzia edozein izanda ere, egilearen lana baloratzen ikastea.

Kontzertu pedagogikoetara joatea.

- **Kontzertu eta musika-emanaldiak entzutea, komentatzea eta balioestea**

Kontzertu eta emanaldiei buruzko iritzi kritikoa eraiki ahal izateko baliabideak eskuratzea.

Kontzertuetara joatea.

Eskolara musikariak ekartzea.

Ikastaldeen arteko kontzertuak prestatzea, eskaintzea eta komentatzea.

- **Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea**

Musika entzuteko eta entzundakoarekin gozatu ahal izateko baliabideak eskuratzea.

Musika historian eta geografian kokatzea.

Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzea.

Musikarekiko interesa sortuko duten pizgarriak baliatzea: inguruko musikarien berri izatea, herriko musika-taldeekin nolabaiteko hartu-emana sortzea, musika-formazioak osatzea, etab.

Kantua

- **Ahotsa erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan**
Ahotsak ematen dituen aukerez jabetzea eta horiek baliatzea.
Ahotsarekin musika-laguntzak egiteaz gain, girotzeko jardueretan erabiltzea.
- **Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak interpretatzea**
Ahotsa berotzeko oinarrizko ariketak.
Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).
Polifonia: kanonak, bi edo hiru ahotsetarako konposizioak, etab.
Keinuz lagunduriko kantak.
Abestiak buruz ikasteko teknikak erabiltzea.
Taldeko nahiz bakarkako interpretazioan oinarrizkoak diren arauak barneratzea.
- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abesti-errepertorioa eskuratzea**
Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen ikastea.
Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.
- **Ahotsarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**
Ahotsak ematen dituen aukerak ezagutzea.
Ahotsak dituen mugez konturatzeko.
Ahotsa baliatzea hainbat egoerari aurre egiteko (egoera errealetan nahiz apropos sorturikoetan).
- **Abesti gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilita**
Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea ahozko praktikan (landuko diren kanten partiturak, esaterako).
Melodia-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako melodiak idaztea.
- **Ahotsa zaintzeko ohitura hartzea**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren neurriak hartzea: beroketarako intonazio-ariketak egitea, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko ardura hartzea.
- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Ahotsak ematen dituen aukerak lantzeko motibagarriak diren jarduerak.
Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: urduritasuna baretzeko eta ausardia

sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailetan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.

- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**

Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.

Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**

Txirula eta musika-gelako beste tresna batzuk.

Ikasleek jotzen dituzten musika-tresnak.

Objektuek ematen dituzten soinu-aukerak aztertzea, eta, haiek baliaturik, erritmo-laguntzak egitea.

- **Pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**

Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan (landuko diren abestien partiturak, esaterako).

Erritmo-eskemen irakurketa eta idazketa.

Sortutako erritmo-laguntzen idazketa.

Txirula jotzeko gaitasuna zabaltzea eta teknikak sendotzea gradualtasunaren printzipioan oinarriturik.

Melodia ezagunen txirularako transkripzioak interpretatzea (partitura eskainita, imitazio bidez ala entzumenaz baliaturik doinuak identifikatuta).

Buruz ikasteko teknikak.

Urduritasuna eragiten duten egoerak identifikatzea, haiekin bizitzen ikasteak ematen duen aukeraz jabetzea, eta aurrera egiteko estrategiak lantzea.

Bakarkako interpretazioan oinarritzkoak diren arauak barneratzea.

Taldekideekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**

Erritmo-arietak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.

Inprobisazio-lanetan koordinazioz aritzeko oinarri baten beharraz jabetzea.

Txirularekin edo kantuarekin landutako abestietan erritmo-laguntzak egitea inprobisazioz.

Dantzetan egiten ditugun pausoek erritmoarekin duten loturaz jabetzea eta, hori oinarrian harturik, akonpainamenduak inprobisatzea.

- **Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea**

Akonpainamendu errazak sortzea eskolako tresnekin, perkusio txikiarekin, hots-jostailuekin zein bat-batean inprobisatutako tresnekin, aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.

Askotariko musika-lanen instrumentazioak.

Taldeko interpretazioan oinarritzkoak diren arauak barneratzea.

Taldekideekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea**

Musika-tresnak guztiok zaindu beharrekoak direla jabetzea.

Norberarenak izan nahiz guztionak izan, musika-tresnak egoki erabiltzeko arauak ezagutzea eta errespetatzea.

- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**

Musika-tresnekin interpretatzeak dakartzan aukerak lantzeko jarduerak.

Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: beldurra baretzeko eta ausardia sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailtan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.

- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**

Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.

Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren perkusioa akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**

Gorputz-perkusioa.

Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).

Askotariko musika-lanen laguntzak.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko dantza-errepertorioa eskuratzea**
 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.
 Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.
 Eskolako festa-giroan ohikoak diren dantzetan espontaneotasunez parte hartzea (adina, ikasmaila, lagun-taldea, etab. edozein dela ere).
- **Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta**
 Musiken jatorria eta ezaugarriak lantzea (gurean ohikoak izaten ez diren erritmoak, melodiak...).
 Koreografiak asmatzeko urratsak ematea (musikaren forma identifikatzea, erritmo-neurriak argitzea, esaldiak bereiztea...).
 Ikasgelan lantaldeak osatzeko garaian sortzen diren ezinegonak modu naturalean bideratzea.
 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak lantzea.
 Dantzak elkarbizitzari egiten dion ekarpenaz jabetzea.
- **Gorputzarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**
 Dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzea.
 Dantza libre erabiltzea soinuen nahiz bizidunon sentimenduen erantzun gisa.
 Abestien dramatizazioa.
 Askotariko mugimendu-jolasak.
 Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea, onartzea eta harenganako konfiantza indartzea.
 Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.
- **Gorputza zaintzeko ohitura hartzea**
 Norberaren nahiz taldekoen gorputza zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera barneratzea.
 Esfortzu fisikoa beharrezkoa den egoeretan ahalmena ondo neurtzea (nork bere gaitasunei eta mugei tamaina hartuta).
 Gorputza mugimendu bidezko espresiorako erabiltzeko garaian, beroketa-ariketak kontuan hartzea.
- **Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik**
 Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzea.
 Dantzen jatorriari buruz hausnartzea eta herrien izatearekin lotzea.
 Herrien historian zehar dantzek izan duten funtzionaltasunaz hausnartzea.

Eskolako familiek, nork bere kulturatik, egin ditzaketen ekarpenak baliatzea.

Dantza ahalik eta sendoen errotzea eskola-ohituretan, guztion elkargune izan dadin.

- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Gorputz-mugimenduak ematen dituen aukerak lantzeko jarduera motibagarriak.
Ekintzen aurretik lanketa egitea talde-nortasunarekiko kontzientzia indartzeko eta eroso aritzeko.
Gorputz-mugimenduaren bidezko espresioak gizakion beharretan duen garrantziaz hausnartzea.
- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

SEIGARREN MAILA

Zeharkako kompetentziak

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
- Elkarbizitzarako kompetentzia
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako kompetentzia
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia

Helburuak eta ebaluazio-irizpideak

- 1. Kultura musikalak norberaren ideiak, sentimenduak eta bizipenak komunikatzeko eta adierazteko ematen duen aukeraz ohartzea, eta komunikazio-gaitasunean, pentsamendu kritikoan eta konfiantzan aurrera egitea**
 - 1.1 Entzunaldietan gozatzeko baliabideak dauzka.
 - 1.2 Entzuketek, gogo-aldartearen arabera, bere buruarengan eta besteengan eragiten dutena errespetatzen du.
 - 1.3 Egoerak egoera eta helburuak helburu, musika aukeratzeko irizpide argiak ditu.
 - 1.4 Interpretazioan eroso sentitzeko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen ari da.
 - 1.5 Kantuaren, musika-tresnen eta gorputz-mugimenduaren bitartez estilo askotako musika-obren interpretazioan parte hartzen du.
 - 1.6 Instrumentu-praktikak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia errespetatzen du.
 - 1.7 Dantza libre baliatzen du soinuen eta estimuluen erantzun gisa.

- 2. Musika-hizkuntzaren oinarriak ezagutzea eta baliatzea, eta teknologia berriek ematen dituzten aukera ugarietan oinarrizkoenak aprobetxatzea**
 - 2.1 Grafia ez konbentzionalen bidez soinuen parametroak irakurtzen eta idazten ditu.
 - 2.2 Grafia konbentzionalen kodea ezagutzen eta baliatzen du.
 - 2.3 Instrumentuzko eta ahozko praktikan barneratutako grafia-kodeak erabiltzen ditu.
 - 2.4 Musika aitzakia hartuta, hainbat iturritan informazioa bilatzen du.
 - 2.5 Informazioa lortzeko, iturrien egokitasunari buruzko hausnarketa egiten du.
 - 2.6 Lortutako informazioa modu askotan kudeatzen du, helburuaren arabera.

- 3. Arte-adierazpenak hobeto ulertzeko, gozatzeko eta erreferente estetiko berriak izateko, haietan erabili ohi diren teknikek eta baliabideek kultura musikalean duten presentziaz kontziente izatea**
 - 3.1 Giro akustiko egokiarekiko arduraz jokatzeko du.
 - 3.2 Soinuen ezaugarriak lantzen gogoz aritzen da.
 - 3.3 Hainbat egoeraren aurrean musika erantzun gisa erabiltzen gozatzen du.
 - 3.4 Musikak, gainerako arte-adierazpenekin batera, historian eta geografian zehar izan duen bilakaeraz kontziente da.
 - 3.5 Askotariko arte-adierazpenetan musikak duen garrantziaz ohartzen da.

- 4. Trebetasun intelektualez, ekimenaz, irudimenaz eta sormenaz baliaturik eta horiek aberasteko asmoz, besteen sentimenduetan edo musika-lanetan oinarritutako ideiak birsortzea**
 - 4.1 Melodiak sortzen ditu hitzezko esaldiekin.
 - 4.2 Koreografiak sortzen ditu.
 - 4.3 Akonpainamendu errazak sortzen ditu.
 - 4.4 Txirulaz ikasitako kantuak perkusio-tresnaz laguntzen ditu.
 - 4.5 Taldekideen ekarpenak begi onez hartzen eta aberasten ditu.

- 5. Proiektuetan emaitza egokiak lortzeko prozedurak planifikatzea, ebaluatzea eta egokitzea, eta horrek dakartzan erronkez jabetzea**
 - 5.1 Taldean egindako dantza, kantu eta bestelako jardueretan, ikaskideen ekarpenak errespetatzen ditu.
 - 5.2 Aldaketak egitea komenigarri dela bistakoa bada, ez du hori onartzeko arazorik.
 - 5.3 Ikaskideen produkzioen arteko aldeak aintzat hartzen ditu.
 - 5.4 Kideen kritika modu eraikitzailean jasotzen du.
 - 5.5 Barneraketa-prozesuetan eman beharreko pausoak ezagutzen ditu.
 - 5.6 Kantuz, musika-tresnaz eta gorputzaz baliaturiko jardueretan beharrezkoak diren teknikak modu egokian erabiltzen ditu.
 - 5.7 Proiektuetan bete beharreko urratsak ezagutzen ditu.

- 6. Musikak historian zehar eta kulturaz kultura zer garrantzi izan duen ulertzeko, kultura musikalaren gizarte-funtzio ugarien berri jakitea eta funtzio horiek bizitzan duten presentziaz ohartzea**
 - 6.1 Kanten eta dantzen jatorria lantzen denean arretaz aritzen da.
 - 6.2 Musikak garaiaren arabera egin duen aldaketaz hausnartzen gogoz jarduten da.
 - 6.3 Musika historian eta geografian kokatzen du.
 - 6.4 Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzen da.
 - 6.5 Kulturaz kultura, musikaren ezaugarri nagusiak bereizten ditu.
 - 6.6 Ekintza osagarrien aurrean jarrera positiboa erakusten du.
 - 6.7 Musika-formazio nagusiak ezagutzen ditu.
 - 6.8 Euskal kulturaren musikak duen askotariko erabilerari erreparatzen dio.
 - 6.9 Inguruko ohitura musikalei buruzko hausnarketa gogoz egiten du.

- 7. Soinuetatik abiatuta, ekoizpenek inguru fisikoarekin eta sozialarekin dituzten loturak azaltzea eta era kritikoan aztertzea, gure bizitzan duten eragina ulertzeko**
 - 7.1 Zarataz, kutsadura akustikoaz eta haien eraginaz kontziente da.
 - 7.2 Eguneroko giro akustikoa hobetzeko zenbait jokabiderekonpromisoa hartzen du.
 - 7.3 Tradiziozko musikaren oinarritzko ezagutza batzuk eskuratu ditu.
 - 7.4 Soinuak inguru fisikoan kokatzen ditu.
 - 7.5 Musika-tresnen jatorriak ezagutzen ditu.

- 7.6 Musika-tresnak ezaugarrien arabera taldekatzen ditu.
 - 7.7 Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzen da.
 - 7.8 Musikaren eta herri-izaeren arteko lotura ikusten du.
 - 7.9 Hainbat estilo eta kulturatako musika-lanak entzuten eta ezagutzen ditu.
- 8. Kooperazio-trebetasunak lantzeko, musika-jarduera kolektiboetan parte hartzea, arduraz jokatzeko eta denen ekimen eta ekarpenak balioestea**
- 8.1 Talde-jardueretan bete beharreko arauak errespetatzen ditu.
 - 8.2 Jasotakoak eragiten dion iritzia edozein izanda ere, egilearen lana baloratzen du.
 - 8.3 Une bakoitzak eskatzen duen jarrera hartzen du.
 - 8.4 Talde-jardueretan eroso sentitzen da.
 - 8.5 Taldekideen ekarpenak entzuteko eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak ondo kudeatzen ditu.
 - 8.6 Taldeak bere lanari egiten dion kritika jasotzeko eta kudeatzeko prest egoten da.
 - 8.7 Eskolako festa-giroan, musikaren inguruko jardueretan gogoz parte hartzen du.
 - 8.8 Musikak eta dantzak elkarbizitzari egiten dioten ekarpenaz jabetzen da.
- 9. Autoestimuan aurrera egiteko eta sentimenduen berri emateko gaitasuna hobetzeko, norberak egindako musika-lanetan konfiantza izatea eta jarduera horretan emandako denboran gozatzea, norberaren eta taldearen hazkunde pertsonalari egiten dion ekarpenaz jabetuz**
- 9.1 Bere buruarekiko nahiz besteekiko begirunez jokatzeko du.
 - 9.2 Sorkuntza-lanetan gogoz aritzen da.
 - 9.3 Urduritasuna eragiten dioten egoerak identifikatzen ditu.
 - 9.4 Urduritasun-egoerei aurre egiteko gero eta sendoagoak diren estrategiak erabiltzen ditu.
 - 9.5 Interpretatzearen oztopoak gaindituta, poza adierazten du.
 - 9.6 Kantuaren, gorputz-mugimenduaren edo musika-tresnen bidezko adierazpenarekin disfrutatzen du.
 - 9.7 Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortzeko asmoa duten jardunetan gozatzen du.
- 10. Hainbat kulturatakoak izanik, elkarlanean aritzeak eta arte-esperientziak trukatzeko norbera aberastu egiten duela ohartuta, Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako musika-adierazpenak ezagutzea, balioestea eta lantzea.**
- 10.1 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuen lanketan parte hartzen du.

- 10.2 Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzetan parte hartzen du.
- 10.3 Musika-adierazpenen inguruko hausnarketan gogoz aritzen da.
- 10.4 Musika-jarduerak baliatzen ditu eskolako kideekin erlazionatzeko.
- 10.5 Musika-ekitaldiekin loturik familian dituen ohiturak naturaltasunez azaltzen ditu.
- 10.6 Landutako arte-adierazpenarekiko errespetuz jokaten du, obra edozein kulturatakoa izanik ere.

Edukiak

1. MULTZOA. Eduki komunak

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (konparatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburbiltzea), buruz ikastea eta azaltzea (deskribatzea, definizioak eta laburpenak egitea, azalpenak ematea, etab.).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoiak ematea, etab.).
- Ideiak sortzea, hautatzea eta adieraztea.
- Ideien, zereginen eta proiektuen plangintza eta analisiak egitea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa, hitzik gabekoa eta digitala).
- Norberaren jokabide morala erregulatzea.
- Norberaren motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea.

2. MULTZOA. Hautemate auditiboa eta ulerkuntza musikala

- Eraso akustikoekiko jarrera kritikoa izatea eta gogoz lan egitea haiek murrizteko.
- Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea.
- Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeo.
- Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta, haien bereizgarritasunetan oinarrituta, jatorrizko kulturarekin lotzea.
- Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea eta ohiko taldekatzeak egitea.
- Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa.
- Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea.
- Kontzertuetara eta musika-emanaldietara joatea, komentatzea eta balioestea.
- Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea.

3. MULTZOA. Musika-espresioa, -interpretazioa eta -sormena

- Ahotsa, gorputzaren perkusioa eta musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea testu errezitatu, abesti eta dantzetan.
- Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abestien eta dantzen errepertorioa eskuratzea.
- Ahotsa, gorputza eta musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea.
- Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea: pentagrama, notak, figura eta isiluneak, sol klabea, konpasa, etab.
- Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea.
- Abesti eta pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia.
- Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak eta pieza instrumentalak interpretatzea.
- Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta.
- Estimuluei erantzuteko inprobisazioa baliatzea ahotsarekin, musika-tresnekin eta gorputzarekin.
- Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik.
- Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea.
- Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan.

Edukien sekuentzia

Musika-mintzaira

- **Musika-adierazpenaren kode konbentzionala ulertzea eta erabiltzea**
Pentagrama, sol klabea, notak (do₄-tik fa₅-era arte), nota-irudiak eta isiluneak (biribila, zuria, beltza, kortxea eta kortxeaerdia), armadurako eta noten aurreko alterazioak (bemola, sostenitua eta bekoadroa), enarmonia, moduak (maiorra eta minorra), puntua, errepika-zeinuak (bi puntu, *da capo* eta *fine*), konpasa, marra zatitzaileak, anakrusia, ligatura (balio- eta espresio-ligatura), tempoak (*andante*, *moderato* eta *allegro*), tempo-argibideak (*ritardando*, *rallentando* eta *accelerando*), intentsitate-argibideak (*crescendo* eta *diminuendo*), ñabardura dinamikoak (*forte* eta *piano*), kalderoia eta artikulazio motak (ligatua eta pikatua).
Biko, hiruko, lau, bosteko, seiko eta zazpiko konpasak.
Erritmo- eta melodia-diktaketak.
Abestien transkripzioak.
- **Musika-mintzairako tresnak erabiltzea obra xumeak aztertzeko**
Musika-formak.
Esaldien neurriak.
Dinamika eta agogika, tempoak, artikulazioa, modua (maiorra eta minorra), etab.
- **Era askotako grafiak erabiltzeaz gain, konbentzio-zeinuak baliatuz lan egitea**
Barneratutako konbentzio-zeinuetan oinarritzen diren partiturak erabiltzea (kantu nahiz tresna bidezko interpretazioan, adibidez).
- **Hainbat iturritan bilatzea musika-tresnei, konpositoreei, interpreteei, musika-ekitaldiei eta musikaren funtzio eta erabilerei buruzko informazioa**
Informazioa bilatzen, identifikatzen, sailkatzen eta laburtzen ikastea.
Lortutako informazioaren berri ematea.
Informazio-iturrien egokitasunaren inguruko hausnarketa egitea.
Hain ezagunak ez diren musikak aitzakia hartuta, beste kultura batzuetako adierazpenak partekatzea.

Entzumena

- **Eraso akustikoekiko jarrera kritikoa izatea eta gogoz lan egitea eraso horiek murrizteko**
Eskola-eremuan, etxean, kalean eta beste hainbat gunetan sortzen diren egoera akustikoez jabetzea.
Kontaminazio akustikoarekiko jarrera kritikoa edukitzea.

Entzumen-galera sor dezaketen egoerek dakartzaten arriskuez jabetzea. Soinuak ikertzeko landutako parametroetan oinarritzea: altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea. Eguneroko giro akustikoa hobetuko duten zenbait jokabiderekin konpromisoa hartzea.

- **Adi entzutea hainbat estilo eta kulturatako musika-konposizioak, eta, haien bereizgarritasunetan oinarrituta, jatorrizko kulturarekin lotzea**

Hainbat garaitako musika.

Herri-musika.

Musika akademikoa.

Ikaskideen familietan ohikoak diren musikak.

Musika-konposizioak berezi egiten dituzten elementuak.

Kulturaz kultura, musiken ezaugarriak identifikatzea eta bereiztea.

Musika deskribatzeko eta sailkatzeko beharrezkoak diren prozedurak lantzea.

Musika-entzuketara aktiboan bete beharreko arauetako begirunea lantzea.

- **Tresnen eta ahotsen sonoritateak hautematea eta ezaugarrien arabera sailkatzea**

Tresnak taldekatzeko garaian kontuan hartuko ditugun faktore ugariak aztertzea: soinua nola ateratzen duen, nola jotzen den, zer materialez eginda dagoen...

Faktore horiek guztiek soinuek nola eragiten duten hausnartzea.

Musika-tresnen taldekatzean ohikoak diren familien sailkapenak egitea.

Ahotsen sailkapena egitea (baxua, baritonoa, tenorra, kontratenorra, kontraltoa, mezzosopranoa, sopranoa).

Diskriminazio-jolasak.

- **Entzunaldietan eta bestelako musika-emanaldietan izan behar diren portaera-arauak ezagutzea eta betetzea**

Errespetuzko begirada lantzea.

Isiltasunak duen garrantzia balioestea.

Emanaldietan orokorrak izan ohi diren arauak barneratzea.

Jasotakoak eragin duen iritzia edozein izanda ere, egilearen lana baloratzen ikastea.

Kontzertu pedagogikoetara joatea.

- **Kontzertu eta musika-emanaldiak entzutea, komentatzea eta balioestea**

Kontzertu eta emanaldiei buruzko iritzi kritikoa eraiki ahal izateko baliabideak eskuratzea.

Kontzertuetara joatea.

Eskolara musikariak ekartzea.

Ikastaldeen arteko kontzertuak prestatzea, eskaintzea eta komentatzea.

- **Estilo, konpositore, garai eta kultura askotako musika-obrak balioestea eta lan horiek entzunez gozatzea**

Musika entzuteko eta entzundakoarekin gozatu ahal izateko baliabideak eskuratzea.

Musika historian eta geografian kokatzea.

Kulturaz kultura, musikak historian zehar eta gizarte-maila orotan izan duen garrantziaz jabetzea.

Musikarekiko interesa sortuko duten pizgarriak baliatzea: inguruko musikarien berri izatea, herriko musika-taldeekin nolabaiteko hartu-eman sortzea, musika-formazioak osatzea...

Kantua

- **Ahotsa erabiltzea testu errexitatu, abesti eta dantzetan**

Ahotsak ematen dituen aukerez jabetzea eta horiek baliatzea.

Ahotsarekin musika-laguntzak egiteaz gain, girotzeko jardueretan erabiltzea.

- **Euskal Herriko eta beste kultura eta garai batzuetako ahotsezko piezak interpretatzea**

Ahotsa berotzeko oinarrizko ariketak.

Ahots bakarreko kantak ikasleen tesitura-mugak kontuan hartuta (*a cappella* nahiz oinarri harmonikoz lagundurik).

Polifonia: kanonak, bi edo hiru ahotsetarako konposizioak, etab.

Keinuz lagunduriko kantak.

Abestiak buruz ikasteko teknikak erabiltzea.

Taldeko nahiz bakarkako interpretazioan oinarrizkoak diren arauak barneratzea.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko abesti-errepertorioa eskuratzea**

Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko kantuak ikastea.

Kanten jatorria eta ezaugarriak lantzea.

- **Ahotsarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**

Ahotsak ematen dituen aukerak ezagutzea.

Ahotsak dituen mugez konturatzea.

Ahotsa baliatzea hainbat egoerari aurre egiteko (egoera errealetan nahiz apropos sorturikoetan).

- **Abesti gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**
Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea ahozko praktikan (landuko diren kanten partiturak, esaterako).
Melodia-eskemak irakurtzea eta idaztea.
Sortutako melodiak idaztea.
- **Ahotsa zaintzeko ohitura hartzea**
Ahotsa zaintzeko oinarrizkoak diren neurriak hartzea: beroketarako intonazio-ariketak egitea, ahotsaren erabilera desegokiak identifikatzea eta ahots-osasunaren gaineko ardura hartzea.
- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Ahotsak ematen dituen aukerak lantzeko motibagarriak diren jarduerak.
Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: urduritasuna baretzeko eta ausardia sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailtan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.
- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Musika-tresnak

- **Musika-tresnak akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**
Txirula eta musika-gelan dauzkagun musika-tresna batzuk.
Ikasleek jotzen dituzten musika-tresnak.
Objektuek ematen dituzten soinu-aukerak aztertzea, eta, haiek baliaturik, erritmo-laguntzak egitea.
- **Pieza instrumental gero eta zailagoak irakurtzea eta interpretatzea, grafia konbentzionalak eta ez konbentzionalak erabilia**
Barneratutako grafia konbentzionalen kodeak erabiltzea instrumentu-praktikan (landuko diren abestien partiturak, esaterako).
Erritmo-eskemen irakurketa eta idazketa.
Sortutako erritmo-laguntzen idazketa.
Txirula jotzeko gaitasuna zabaltzea eta teknikak sendotzea gradualtasunaren printzipioan oinarriturik.

Melodia ezagunen txirularako transkripzioak interpretatzea (partitura eskainita, imitazio bidez ala entzumenaz baliaturik doinuak identifikatuta).

Buruz ikasteko teknikak.

Urduitasuna eragiten duten egoerak identifikatzea, haiekin bizitzen ikasteak ematen duen aukeraz jabetzea, eta aurrera egiteko estrategiak lantzea.

Bakarkako interpretazioan oinarritzkoak diren arauak barneratzea.

Taldekiekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**

Erritmo-ariketak: galdera-erantzunen inprobisazioak, erritmo-eskemak identifikatzea, errepikatzea eta berriak inprobisatzea.

Inprobisazio-lanetan koordinazioz aritzeko oinarri baten beharraz jabetzea.

Txirularekin edo kantuarekin landutako abestietan erritmo-laguntzak egitea inprobisazioz.

Dantzetan egiten ditugun pausoek erritmoarekin duten loturaz jabetzea eta, hori oinarrian harturik, akonpainamenduak inprobisatzea.

- **Perkusio txikiarekin (Orff) nahiz sortutako musika-tresnekin edo hots-jostailuekin instrumentazio xumeak interpretatzea**

Akonpainamendu errazak sortzea eskolako tresnekin, perkusio txikiarekin, hots-jostailuekin zein bat-batean inprobisatutako tresnekin, aurretik landutako erritmo-eskemetan oinarrituta.

Askotariko musika-lanen instrumentazioak.

Taldeko interpretazioan oinarritzkoak diren arauak barneratzea.

Taldekiekiko eta haiek egiten duten ahaleginarekiko begirunea lantzea.

- **Musika-tresnak zaintzeko ohitura hartzea**

Musika-tresnak guztiok zaindu beharrekoak direla jabetzea.

Norberarenak izan nahiz guztionak izan, musika-tresnak egoki erabiltzeko arauak ezagutzea eta errespetatzea.

- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**

Musika-tresnekin interpretatzeak ematen dituen aukerak lantzeko jarduera motibagarriak.

Interpretazioa (bakarkakoa nahiz taldekoa) ahalik eta erosoena izan dadin, hainbat estrategia lantzea: beldurra baretzeko eta ausardia sendotzeko, ziurtasunez jokatzeko, egoera zailtan aurrera egiteak norbera handitu egiten duela konturatzeko, taldekideei momentu ahuletan laguntza ematen jakiteko, besteen laguntza jasotzen ikasteko, etab.

- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**

Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrira prestatuak.

Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.

Gorputz-mugimendua

- **Gorputzaren perkusioa akonpainamendu moduan erabiltzea abesti eta dantzetan**

Gorputz-perkusioa.

Erritmo-eskemak (imitazio nahiz grafia bidezkoak).

Askotariko musika-lanen laguntzak.

- **Euskal kultura-ondareko eta beste kultura batzuetako mota eta estilo askotariko dantza-errepertorioa eskuratzea**

Euskal Herriko nahiz beste herrialde batzuetako tradiziozko dantzak ikastea.

Dantzen jatorria eta ezaugarriak lantzea.

Eskolako festa-giroan ohikoak diren dantzetan espontaneotasunez parte hartzea (adina, ikasmaila, lagun-taldea, etab. edozein dela ere).

- **Taldeko dantzak eta koreografiak asmatzea eta interpretatzea, Euskal Herriko eta beste hainbat toki eta estilotako musika-piezetatik abiatuta**

Musiken jatorria eta ezaugarriak lantzea (gurean ohikoak izaten ez diren erritmoak, melodiak...).

Koreografiak asmatzeko urratsak ematea (musikaren forma identifikatzea, erritmo-neurriak argitzea, esaldiak bereiztea...).

Ikasgelan lantaldeak osatzeko garaian sortzen diren ezinegonak modu naturalean bideratzea.

Taldekideen ekarpenak entzun eta begirunez hartu ahal izateko baliabide emozionalak lantzea.

Dantzak elkarbizitzari egiten dion ekarpenaz jabetzea.

- **Gorputzarekin inprobisatzea estimuluei erantzuteko**

Dantza errazen oinarrizko teknikak praktikatzea.

Dantza libre erabiltzea soinuen nahiz bizidunon sentimenduen erantzun gisa.

Abestien dramatizazioa.

Askotariko mugimendu-jolasak.

Gorputzak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea, onartzea eta harenganako konfiantza indartzea.

Dantzak une bakoitzean eskatzen duen jarrera egokia ezagutzea.

- **Gorputza zaintzeko ohitura hartzea**
Norberaren nahiz taldekoen gorputza zaintzeko oinarrizkoak diren hainbat jarrera barneratzea.
Esfortzu fisikoa beharrezkoa den egoeretan ahalmena ondo neurtzea (nork bere gaitasunei eta mugei tamaina hartuta).
Gorputza mugimendu bidezko espresiorako erabiltzeko garaian, beroketa-ariketak kontuan hartzea.
- **Musika eta dantza balioestea, herrien kultura-ondarearen osagai diren aldetik**
Musikak, dantzarekin batera, kultura-ondarean duen lekuaz jabetzea.
Dantzen jatorriari buruz hausnartzea eta herrien izatearekin lotzea.
Herrien historian zehar dantzek izan duten funtzionaltasunaz hausnartzea.
Eskolako familiek, nork bere kulturatik, egin ditzaketen ekarpenak baliatzea.
Dantza ahalik eta sendoen errotzea eskola-ohituretan, guztion elkargune izan dadin.
- **Interesa eta ardura izatea interpretatzeko eta sortzeko jardueretan**
Gorputz-mugimenduak ematen dituen aukerak lantzeko jarduera motibagarriak.
Ekintzen aurretik lanketa egitea talde-nortasunarekiko kontzientzia indartzeko eta eroso aritzeko.
Gorputz-mugimendu bidezko espresioak gizakion beharretan duen garrantziaz hausnartzea.
- **Sorkuntzan, jarrera saiatua eta aurrera eta hobera egiteko borondatea izatea**
Ikaslea ezinbesteko duten jarduerak: ludikoak, arrakastatsuak eta ikaslearen neurrikoak.
Taldeari erosotasuna eta hobetzeko grina sortuko dizkioten jardunak.